

# JOLAS TAILER BAT IKASKUNTZA ZERBITZUA METODOLOGIA ERABILTZEN



## GRADU AMAIERAKO LANA

**Egilea:** Basterra Muñoz, Iruri.

**Zuzendaria:** Vizcarra Morales, Maria Teresa.

2021-2022

## **LABURPENA**

Ikaskuntza zerbitzua, eduki akademikoak garatzen laguntzen duen irakaskuntza-metodologia da, eta aldi berean, komunitateari zerbitzu bat ematen zaio gizarte-premiaren bati erantzuten. Gradu Amaierako Lan honetan, metodologia hau martxan jarri dut jolas kooperatiboetan oinarrituriko zerbitzu baten bitartez. Haurren arteko kooperazioa izan da proiektuaren ardatza, helburu komun bat lortzeko laguntza eman eta jasotzea eskatzen duelako, talde sentimendua indartuz.

Planteaturiko zerbitzuak Kanpezuko herrian jartzen du fokoa, desberdintasunak ezabatzeko eta gizarte bidezkoagoa zein inklusiboagoa eraikitzerako bidean behar bati erantzuteko. Testuinguru erreal batean aurrera egin duen proiektuak asteburuetan herriko haurrei ondo pasatzeko eta aldi berean jarduera fisikoa egiteko baliabide bat eskaini die. Aukera eman du bertako eta inguruetako herrietako haurrak elkartzeko inguru inklusibo eta euskaldun batean, sendentarismoa edo bakardadea ekiditen.

Planteaturiko zerbitzua ez dio arazo bateri erantzun definitiboa ematen baina aurrera pausu txikia izan da, planteaturiko helburuak lortu dituenak eta herriari onurak ekarri dizkionak. Horregatik, teoria praktikara eramateko aukera ematen duen proiektu baten nondik norakoak azaltzen dira hurrengo orrietan.

Hitz gakoak: ikaskuntza zerbitzua, jolas kooperatiboak, alternatiba, herria, talde-sentimendua.

## **RESUMEN**

El aprendizaje-servicio es una metodología docente que ayuda al desarrollo de los contenidos académicos, al tiempo que se presta un servicio a la comunidad atendiendo a alguna necesidad social. En este trabajo de fin de grado se ha puesto en marcha esta metodología a través de un servicio basado en juegos cooperativos. El proyecto se ha centrado en la cooperación, ya que requiere apoyo y recepción para lograr un objetivo común, reforzando el sentimiento de grupo.

El servicio planteado pone el foco en la localidad de Campezo para responder a una necesidad de eliminar las desigualdades y construir una sociedad más justa e inclusiva. El proyecto, que ha avanzado en un contexto real, ha ofrecido a los niños de la localidad los fines de semana un recurso para divertirse y hacer actividad física a la vez. Ha permitido

que los niños y niñas de los pueblos de la zona se reúnan en un entorno inclusivo y euskaldun, evitando el sedentarismo o la soledad.

El servicio planteado no da respuesta definitiva a un problema, pero ha sido un pequeño paso adelante, que ha conseguido los objetivos planteados desde el principio y ha aportado beneficios al pueblo. Por eso, en las siguientes páginas se explican los entresijos de un proyecto que permite llevar a la práctica la teoría.

Palabras clave: aprendizaje-servicio, juegos cooperativos, alternativa, pueblo, sentimiento de grupo.

### **ABSTRACT**

Service-learning is a teaching method that helps the development of academic content while providing a service to the community in response to a social need. In this final degree project, this methodology has been implemented through a service based on cooperative games. The project has been focused on cooperation, as it requires support and reception to achieve a common goal, reinforcing the group identity.

The proposed service focuses on the town of Campezo to respond to a need to eliminate inequalities and build a fairer and more inclusive society. The project, which has been conducted in a real context, has offered local children a resource for fun and physical activity on the weekends. It has allowed children from villages in the area to come together in an inclusive and Basque-speaking environment, avoiding the risk of being alone or having a sedentary lifestyle.

The proposed service does not provide a definitive answer to the problem, but it has been a small step forward, which has achieved the objectives set from the beginning and has brought benefits to the town. For this reason, the following pages explain the ins and outs of a project that makes putting theory into practice possible.

Keywords: service-learning, cooperative games, alternative, village, group feeling.

# AURKIBIDEA

SARRERA	<b>4</b>
MARKO TEORIKOA	<b>5</b>
2.1 Campus Bizia Lab (CBL) programa	5
2.2 IKASKUNTZA ZERBITZUA	5
2.3 JOLAS KOOPERATIBOAK	9
HELBURUAK	<b>12</b>
METODOA	<b>13</b>
4.1 ESZENATOKIAREN DESKRIBAPENA.	13
4.2 PARTE-HARTZAILEAK.	15
4.3 PROZEDURA.	16
4.4 TRESNAK	19
4.5 ANALISIA	20
4.6 IRIZPIDE ETIKOAK	20
EMAITZAK	<b>20</b>
5.1 PLANIFIKAZIOA	20
5.1.1 ASPEKTU METODOLOGIKOAK	20
5.1.2 PROPOSAMEN DIDAKTIKOA	22
5.1.3 FAKTORE ERRESTATZAILE ETA OZTOPATZAILEAK	25
5.2 HARREMANAK	26
5.2.1 PARTE-HARTZAILEEN ARTEKO HARREMANAK	26
5.2.2 IRAKASLEEKIKO JARRERA	27
5.2.3 GURASOEN ERANTZUNA	28
5.3 INZIDENTE KRITIKOAK	28
5.3.1 GERTAERAK ETA HARTUTAKO ERABAKIAK	28
5.4 SENTIPENAK	29
5.4.1 KEZKAK, ZALANTZAK ETA BELDURRAK	29
5.4.2 HAUSNARKETA	30
5.5 ESPERIENTZIA ETA ANEKDOTAK	30
ONDORIOAK	<b>32</b>
6.1 EZTABAIDA	32
6.2 BALORAZIOA	34
6.3 MUGAK ETA HOBEEKUNTZAK	35
ERREFERENTZIAK	<b>36</b>
ERANSKINAK	<b>37</b>

## 1. SARRERA

Gradu amaierako lan honetan ikaskuntza zerbitzuaren metodologia jarri dugu praktikan, guztiz ezezaguna zen hasieran niretzat eta pixkanaka ezagutu eta ulertu dugu praktikara eramatea lortu dugun arte. Metodologia honek aukera eman digu komunitate batean antzemandako gabezia bati erantzun bat emateko, konpromiso eta justizia soziala bermatuz. Ikaskuntza zerbitzuaren bidez ikasteak ikaskuntza esanguratsua eta eraginkorra dakar zuzenean, inplikaturiko alderdi guztientzat onuragarri izanik. Hasieratik amaierara inplikazioa eskatzen duen lan egiteko modua da, honek motibazioa sortzen du egindako lanaren parte zarelako momentu oro eta aurrera jarraitzeko arrazoiak ematen dizkigu.

Gure zerbitzua herrian eskaintzen dugu, Kanpezun, bizirik mantendu nahi dugun inguruan, txikitatik maitatzen ikasi dugun herrian, etxean eta etxekoekin. Herrian bizitzeak onura izugarriak dituelako, baina baditu gabezia txikiak ere eta hauei erantzun bat bilatzea izan da gure helburu eta motibazio nagusia. Hirietan daude zerbitzu gehienak zentralizatuak, baina hauetatik kanpo badago bizitza eta bizitzeko modu desberdin bat, Arabako herrien alde egiten duen biztanleria geroz eta ugariagoa da eta herrietan eskaini daitezkeen zerbitzuak geroz eta anitzagoak, horregatik egin dugu apustu hau. Honetaz gain, gorputz hezkuntzako minorra ikasteak jarduera fisikoa sustatzen duen proiektua bideratzera eraman gaitu, graduan ikasitakoaz baliatuz ahalik eta programazio eraginkor eta hezitzaileena sortuz era autonomo batean. Gainera, Lehen Hezkuntza (LH)-ko haurrei zuzenduriko proiektua da, gure ikasketak adin tarte honen inguruan egin ditugulako eta formakuntza eta esperientzia dugulako honetan.

Oso esperientzia positiboa izan da, profesionalki zein pertsonalki formatu eta indartu nauena, komunitatearekin konektatu eta etorkizunerako bizipen eta esperientziak eskaini dizkidanak. Nire jakintzak praktikan jartzeko aukera eman dit, egindakoaren emaitzak zuzenean behatu eta egindakoaz harro sentiarazi nau, horregatik metodologia praktikoa eta oso baliagarria ikusten dut ikaskuntza zerbitzua.

Lanaren egiturari dagokionez, ikaskuntza zerbitzuaren metodologian oinarrituriko gure proiektuaren xehetasun guztiak azaltzen ditugu. Honetarako, ikaskuntza zerbitzuaren eta jolas kooperatiboei buruz oinarri teoriko bat aurkezten da, aditu desberdinen lanen bitartez informazioa jaso dugu gure proiektua aurrera eraman aurretik euskarri on bat eman diguna. Jarraian, lanaren helburuak eta metodoa zehaztu ditugu, zerbitzua aurrera eraman aurretik, bitartean eta ondoren gertatutakoa laburtuz. Esku-hartzea praktikara aurrera eraman aurretik pauso desberdinak jarraitu ditugulako zerotik sortu dugun zerbitzua aurrera

eramateko, eta programazio eraginkor bat diseinatu dugu aurretik zehazturiko helburuak betetzeko. Gero, esku-hartzean zehar jasotako emaitzak analizatu eta aurkeztu ditugu, eta azkenik emaitza hauen bitartez lortutako ondorioak eta mugak eta hobekuntza proposamenak.

## 2. MARKO TEORIKOA

Gradu Amaierako Lan honetan, beste edozein lanetan bezala, gure proiektua aurrera eramán aurretik oinarri teoriko bat bilatu dugu, landuko diren gai nagusien inguruan ikertuz eta adituek diotenaren inguruan hausnartuz. Gure kasuan, ikaskuntza zerbitzuan oinarrituriko proiektua garatu dugu jolas kooperatiboak erabiliz, beraz, hauek izan dira hurrengo orrietan aztertu ditugun bi gai nagusiak. Honetaz gain, proiektu hau garatzeko aukera eman digun programaren inguruan, Campus Bizia Lab (CBL) proiektuaren inguruan gehiago jakin nahi izan dugu, honen parte garelako eta esperientzia berri bat eskaini digulako.

### 2.1 Campus Bizia Lab (CBL) programa

Campus Bizia Lab (CBL) programak campusa laborategi gisa ulertzen du. Programa honen bidez Euskal Herriko Unibertsitateak 2013-2016 bitartean parte hartu zuen Erasmus University Educators for Sustainable Development proiektuan eta honenekimen bat da. Gu honen partaide gara. Programa honek lankidetzaren prozesu bat sortzea administrazio eta zerbitzuetako langile, ikasle eta irakasleen artean, helburua du eta hala, unibertsitate beraren barruan iraunkortasun erronkei aurre egiteko proposamena heltzen da. Ikerkuntza-ekintza prozesu batean oinarritzen da, ikasleen artean inpaktu handia izango duen praktika bat garatzea helburutzat duena, non irakasleak beren praktikaren ikertzaile gisa aritzen diren. Inpaktu handiko praktika hau Gradu Amaierako Lanen eta Master Amaierako Lanen bitartez gauzatzen da, eta gure kasuan Gradu Amaierako Lanaren bitartez<sup>1</sup>.

Programa honen barnean proiektu desberdinak daude eta gu “Errealitateak eraldatuz: Unibertsitatea eta Komunitatea, hezkuntza Gradu Amaierako Lanetako Ikaskuntza-Zerbitzuaren bitartez humanizatzeko xedearekin lanean” proiektuaren partaide gara. Proiektu hau UPV/EHUko IkHezi ikerketa taldeko kide diren zenbait irakasleren ekimena da: GALak egiteko ikaskuntza zerbitzua erabiltzeko konpromisoa hartu dutenak.

---

<sup>1</sup> CBL programaren barruan dugun proiektua kontsultatzeko:  
<https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/transformando-realidades>

Proiektu hau ikaskuntza-zerbitzua metodologiaren bidez gauzatzen da, hori dela eta azalduko dugu zertan datza metodologia horrek.

## 2.2 IKASKUNTZA ZERBITZUA

Ikaskuntza zerbitzua, eduki akademikoak garatzen laguntzen duen irakaskuntza-metodologia da, eta aldi berean, komunitateari zerbitzu bat ematen diona gizarte-premiaren bati erantzuten. Horregatik, metodologia honek bi helburu nagusi ditu: bat eduki akademikoei loturik eta bestea komunitateari eskeini ahal zaizkion zerbitzuen ingurukoa. Ikaskuntza zerbitzuak ekintza eta hausnarketa egiteko esperientzia praktiko bat suposatzen du, non ikasleek edukiak aplikatzen ditugun, gaitasunak garatzen ditugun eta benetako arazoak ebatzen ditugun, esparru akademiko baten barruan eta aldi berean komunitatearekin elkarlanean (Capella et al., 2020). "Ikaskuntzak kalitatea ematen dio ematen den zerbitzuari, eta zerbitzuak zentzua ematen dio ikaskuntzari. Horrela, ikastetxeetan dauden bi zati batzen dira, baina askotan bananduta daduenak eta loturarik gabe" (Batlle, 2015,4).

Aukera anitzak daude ikaskuntza zerbitzuan oinarrituriko proiektu bat diseinatzerako orduan, bai hezkuntza formalean zein ezformalean, baina guztiek beharrezkoak diren bost alderdi dituzte komunean, (Rubio, 2007):

1. Ikaskuntza → Ikaskuntza sistematizatua izan behar da, eman nahi den zerbitzuari lotua, eta protagonistek martxan jarri aurretik, bitartean eta ondoren ikasiko dutena zehaztu behar dute.
2. Zerbitzua → Zerbitzuak benetakoa izan behar du eta ingurune hurbil edo globalaren benetako beharrei erantzun behar die, hobetzeko helburuarekin.
3. Proiektua → Beharrezkoa da asmo pedagogikoa izatea, irakasleak planifikatu eta ebaluatutako hezkuntza-proiektua.
4. Parte-hartze aktiboa → Esperientziak ikasleen parte-hartze aktiboan eta protagonismoan oinarritu behar dira, informazio-proposamen hutsak gaindituz.
5. Hausnarketa → Proiektuak behar bezala inplementatzeak parte-hartzaileak unean egiten ari direnaz eta gizarte-erabilgarritasunaz jabetzea dakar. Ezinbestekoa da gogoeta egitea jarraitutako prozesuari buruz, egindako ikaskuntzei buruz eta zerbitzuaren eraginari buruz.

Ikaskuntza tradizionala gainditzen duen proposamen metodologiko bat da, ikasleak herri eredu aktibo, parte-hartzaile, arduratsu, solidario, kritiko, sortzaile, global eta ahaldunduaren

parte izatera bultzatzen dituenak. Horrela, gizarte indartsuago bat lortzeko helburuarekin, arazo globalen aurrean erabakitzeko eta parte hartzeko gaitasuna izango duten pertsonak heziz (Chiva, 2011). Metodologia honek, aukera ematen dio ikasleari esperientzia praktikoa eta ikasgeletan lantzen den teoria lotzeko, bere ongizate-eremutik kanpo dagoen arlo batean. Honetarako, eskolek inguruko bidegabekeria-egoerez jabetzea sustatu behar dute, eta ekintzarekiko lehen harreman-puntua erraztu. Horrela, ikaskuntza ikasgelatik haratago zabaltzen da, besteekiko sentsibilitatea eta kezka sustatuz. Ikaslea, ni kasu honetan, zuzenean komunitatearekin harremanetan jartzen da eta honek dituen beharrekin konektatzen da, laguntzen duenaren eta lagundua denaren onura bilatuz (Aramburuzabala et al., 2019).

Ikaskuntza zerbitzua zenbait hastapen pedagogikotan oinarritzen da (Rubio, 2007):

- Aztertzean, ekintzan eta hausnarketan oinarritutako ikaskuntzaren eredu batetik abiatzen da, ezagutzaren aplikagarritasunari garrantzia emanez.
- Balioetan heztea egoera problematikoetatik abiatzea eta erronka horiei esperientzia zuzenaren bitartez aurre egitea da, adimen moralak eskaintzen dizkigun tresnen bidez eta kultura moralaren laguntzaz.
- Herritarren hezkuntzak parte-hartze aktibo, arduratsu, kooperatibo eta solidarioan oinarrituta egon behar duela defendatzen du, gizartea hobetzen lagundu nahi baitu.

Irakasleak gidari rola hartzen du, horrela ikaslea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren erdigunean kokatzen da. Ikasleak, dituen gaitasun eta baliabideak praktikan jartzeko aukera du, dituen ikaskuntza teorikoak benetako egoera eta arazoetan aplikatuz (Capella et al., 2014). Elementu pasiboa edo ez hain aktibo izatetik guztiz aktiboa izatera igarotzen da, nahitaez, metodologia honek planteatzen dituen erronken ondorioz. Honen aplikazioak, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen ikusmoldea aldatzea dakar, prozesu horietan eragile berriak agertzen baitira: gizarte-erakundeak, kanpoko profesionalak, zerbitzua jasotzen duten pertsonak, administrazio publikoak etab. egitura tradizionalan inplikaturako elementuak zabalduz (Chiva et al., 2014).

### ***Ikaskuntza zerbitzuaren faseak***

Roser Batlle (2015) adituaren arabera, ikaskuntza-zerbitzuko proiektu batek funtsezko hiru bloke hauetan laburbiltzen da: prestakuntza, gauzatzea eta ebaluazioa (1. irudia).

1. irudia. Ikaskuntza-zerbitzu baten blokeak.





Iturria: Battle, 2015-en oinarrituta.

Aurreko hiru bloke hauen barnean atal desberdinak zehazten ditu, zazpi atal konkretuki (1.taula) behar batez jabetzetik konpromiso kolektiboaren bitartez errealitatea hobetzeraino. Lehenengo fasean, ikasleen esperientzia, behaketa askea eta bizipenak ditu ardatz. Sentsibilizatu eta zailtasunak edo arazoak antzeman ondoren, arazoa definitzea eta alderdi guztietatik aztertzea da lana. Bigarren fasean, ekintza-plan bat gauzatzen da, eta plan horren gainean konpromisoa eta ardura hartu behar dute ikasleek proposatutako irtenbideak praktikan jartzeko, gure kasuan zerbitzua izan da. Azkenik, lortutako emaitzen analisi eta gogoeta sakona egiten da, egindako ikaskuntzaren puntu nagusiak finkatuz eta argituz. Gainera, egindako lana, ahal den neurrian, ikasgelatik kanpo proiektatu daiteke, beste ikaskideengana eta herritarrengana, sentsibilizazioa eta konpromisoa areagotu daitezen (Chiva, 2011).

1.taula. Ikaskuntza-zerbitzuko faseak.

PRESTAKUNTZA	1	Ideiaren zirriborroa
	2	Itunak ezartzea
	3	Proiektuaren planifikazioa
GAUZATZEA	4	Proiektua taldearekin prestatu
	5	Proiektua gauzatzea
	6	Taldearekin proiektua ixtea
EBALUAZIOA	7	Ebaluazio multifuntzionala

Iturria: Battle, 2015-tik euskaratuta.12. orrialdea.

### ***Ikaskuntza zerbitzua eta gorputz-hezkuntza***

Ikaskuntza zerbitzuak dituen ezaugarriak kontuan harturik, aukera bikaina eskaintzen du heziketa teoriko-praktiko integralaren bidez Gorputz Hezkuntzaren berezko edukiak eta gaitasunak garatzeko. Metodologia hau erabiltzeko bereziki egokia den ezagutza-eremua da, batez ere praktikoa delako, sortzen dituen elkarreragin pertsonaletan aberastasuna

duelako eta bere edukien zabaltasuna, garrantzia eta moldagarritasuna dituelako (Capella et al., 2014).

Jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan ikaskuntza zerbitzuak martxan jartzeko, zenbait irizpide hartu behar dira kontuan, esku hartze, ebaluazio eta inplikaturako eragileen gaineko eragin egokia bermatzeko. Jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko programen arrakasta printzipio argi batzuetan oinarritzen da, eta printzipio horien artean honako hauek aurkitzen dira: sarbide errazak, premia pertsonal eta kolektiboetara egokitzea, ahalduntzea eta parte-hartzea bultzatzea benetako onurak lortzeko, jarduera fisikoa egiteak duen interesari buruzko motibazioa eta sentsibilizazioa eta pertsonen bizitzan eragina izango duen zeharkako tratamendu globalizatzailea eskaintzea. Zentzu honetan, ikaskuntza zerbitzuak gizarteak ezartzen dituen eskakizunei erantzuten die (Aramburuzabala et al., 2019). Gure kasuan eskeiniko dugun zerbitzua jolas kooperatiboetan oinarrituta egongo da, hori dela eta ezinbestekoa ikusten dugu jolas kooperatiboak nola ulertzen ditgun aipatzea.

### 2.3 JOLAS KOOPERATIBOAK

Geroz eta pluralagoa eta multikulturalagoa den gizarte honetan, oso bestelako pertsona eta oso bestelako egoeratan bizi gara eta harremanak izaten ikasteko beharra dago. Horretarako, beharrezkoak dira gaur egungo testuingurura egokitzeko aukera ematen duten gizarte-trebetasunak garatzea, berdinen arteko komunikazioa, errespetua edo tolerantzia garatzeko besteak beste. Trebetasun hauek lantzeko espazio garrantzitsua da eskola, non hezkuntza-prozesuetan balio hauek integratu daitezkeen (Navarro-Patón et al., 2019).

Oinarrizko hezkuntza curriculumean zehazten diren guztietan sustatu behar diren zehar-kompetentziak, hau da, “bizitzako esparru eta egoera guztietan arazo egoerak eraginkortasunez ebazteko behar diren kompetentziak dira, bai diziplina arlo guztietako egoeretan, bai eguneroko bizitzako egoeretan” (236/2015 art.). Bost zehar kompetentzia dira guztira, eta hauetako bat elkarbizitzarako kompetentzia da, “pertsonek arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea da, gainerako pertsonen aitortuz nork bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak, eta horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion onari” (236/2015 art.). Kompetentzia honek adibidez erantzuten die garatu beharreko gizarte-trebetasunei, beraz, argi dago hezkuntzan lantzeko esparrua baduela honek .

Gizarte-trebetasunak lantzeko, gorputz-hezkuntza da bere izaera esperimentalagatik arlo egoki bat, balio pertsonal eta sozialen garapena sustatzen duena. Horregatik, hezkuntzan

hainbat metodologia erabiltzen ari dira, hala nola ikaskuntza kooperatiboa (Basanta-Camiño et al., 2019).

Ikaskuntza kooperatiboa talde txikietan, gehienetan heterogeneoetan, egindako lanean oinarritutako hezkuntza-metodologia da. Funtsezko bost ezaugarri betetzen ditu metodologia honek: helmugan interdependentzia positiboa, aurrez aurreko elkarrekintza eragilea, norbanakoaren erantzukizuna, horrek esan nahi du inork ezin duela jarrera pasiborik hartu, pertsonen arteko trebetasunak eta talde txikian lan egiteko trebetasunak, eta talde-prozesaketa, izandako jokabideak aztertu eta hobetzeko (Velazquez et al., 2014). Esan bezala, talde heterogeneoetan ikasleek elkarrekin lan egiten dute, beren ikaskuntza eta taldeko gainerako kideena hobetzeko. Irakaskuntza-ikaskuntza estrategia garrantzitsua da, eta lorpenak sustatzen ditu maila akademikoan, sozialean eta afektibo-motibazionalean ikasle guztiengan, hezkuntza-premia bereziak dituztenengan barne (Fraile et al., 2014).


Ikaskuntza kooperatiboa edozein ezagutza-arlori aplikatu dakikeen metodologia da, eta azken hamarkadan hainbat ikerketa egin dira ikasketako kooperatiboa gorputz-hezkuntzan txertatzera bideraturik, tradizio lehiakor nabarmena duen ikasgai honetan. Horrela, ebidentzia empirikoak erakutsi du, esparru motorrean ere abantailak dakartzala kooperazioak, lehiari oinarrituriko metodologia tradizionalen gainetik. Metodologia honi esker, ikasle guztiek, beren ezaugarri pertsonalak alde batera utzita, ahalik eta gehien gara ditzakete beren trebetasun motorrak, egoera fisikoa, adierazpen-trebetasunak etab. Hau guztia esparru inklusibo batean, zeinak, gelako giro positiboa sortzen duen, sozializazio-prozesuak errazten dituen eta gelako egoerak bizitzako beste testuinguru batzuetara transferitzea ahalbidetzen dituen (Velázquez, 2004). Metodologia honen barruan aurkitzen dira jolas kooperatiboak, gorputz hezkuntzan erabiltzen direnak eta guk gure zerbitzuan erabiliko ditugunak .

Jolasaren bitartez haurrak modu integralean garatzen joaten dira, beraz, jolasa ez da denbora galtzea, jolasa maila motorrean, kognitiboan, sozio-emozionalean etab. haztea da. Jolasaren bitartez haurrak bere dimentsio ezberdinak aktibatzen ditu, gaitasun fisiko eta psikikoak garatzen ditu, eta gizarte arauak eta komunikazio estrategiak ezagutzen ditu besteak beste (Mondragon unibertsitatea, 2009). Beraz, jolasak dituen erabilerak eta onurak ikaskuntza kooperatiboarekin konbinatuz, jolas kooperatiboak oso baliabide emankorra izan daiteke. Horrelako jolasak egin ahal izateko, kontuan izan behar dira ikasgelaren testuingurua, lan egiteko erabiliko diren teknikak eta metodologia ere, egokitzapen egokienak egiteko (Basanta-Camiño et al., 2019).

Kooperazioak esan nahi du helburu komunera iristeko, laguntza eman eta hartzea izango den interakzio sozialen prozesua egon behar dela. Beraz, jolas kooperatiboetan parte

hartzailen helburuak loturik daude, horregatik, denek partekatzen dute irabaztearen edo galtzearen esperientzia. Jokalari bakoitzak bere rola bidez laguntzen du eta rol hori, jokoa irabazteko beharrezkoa da. Jokalari bakoitzaren paperak garrantzia izanik, bakoitzaren baitan onarpen-sentimendua sor daiteke, baita auto-kontzeptuan eragin mesedegarriak (Mondragon unibertsitatea, 2009). Argi ikusi daiteke Raúl Omeñaca eta Jesus Vicente Ruizek 2005.urtean argitaraturiko liburuan ageri den irudian (2.irudia) zeintzuk diren jolas kooperatibo baten nondik norakoak.

2.irudia: Jolas kooperatiboaren mapa kontzeptuala. Raul Omeñaca eta Jesus Vicente Ruizek egin.



### ***Jolas kooperatiboen ezaugarriak***

Esan bezala, jolas kooperatiboetan taldekide guztien kooperazioa behar da, parte hartzaile guztiek:

- Parte hartzen dute, inor ez dago sobera, inor ez da kanporatuko.
- Helmuga komunera iristeko aritzen dira elkarlanean.

- Gizakiz bestelako elementuen aurka lehiatzen dira, beraien artean lehiatu ordez.
- Jolasa talde-jardueratzat hartzen dute eta horrek denentzako arrakasta-sentimendua sustatzen du.
- Gozatzeko aukera handiagoa dago, galtzeko arriskuaren ondoriozko tentsio eta tristezia ezabatzen direlako. Galtzaile izatearen beldurra ezabatzen da, eta jokalaria bere buruarengan duen konfiantza indartzen dute.

Jolas kooperatiboak plantetzerako orduan, irakasleak jolas bakoitza ondo ezagutu behar du, nola eramango duen aurrera, eta horren bitartez zer eduki landuko diren. Kontuan hartu behar ditu ikasleen egoera eta interesak, zein testuingurutan aurkitzen diren horrela bermatuko du ikasleek jokoaren edukia menderatzea, jokalaria guztien arteko harreman harmonikoa eta guztien parte-hartze aktiboa. Hauetako jolas bat aurrera eramateko metodo desberdinak erabili daitezke, hau da pausuz pausu jolas kooperatibo bat aurrera eramateko Karella de la Caridad Carralerok (2006) aurkeztu duen adibide bat:

- **Jolasaren aurkezpena eta azalpena:** jolasaren izenburua aurkeztu eta jarraian irakasleak ikasleari jarduerarekiko interesa pizteko elkarrizketa edo ipuin bat egiten da jolasaren nondik norakoak azalduz, askotan motibazio on baten arabera da jolasaren arrakasta. Bestalde, azalpenak ulergarriak izan behar dira eta ikus-entzunezko baliabideen bitartez lagundu daiteke.
- **Antolaketa:** parte-hartzaileen banaketari dagokio, irakasleak honi buruzko planifikazio txiki bat izango du behar guztiei erantzun ahal izateko eta jolasaren helburua kontuan izanik.
- **Materiala banatu.**
- **Erakustaldia:** jolasa modu praktikoan azaltzen du irakasleak, ikasleen laguntzaz.
- **Jolasaren hasierako praktika:** ikasleek praktika txiki bat egiten dute, horrek jolasaren ikaskuntza indartu eta azalpenarekin eta erakustaldiarekin geratu diren zalantzak argitzen lagunduko du.
- **Arauen azalpena:** hasierako aurkezpenean gaineratik azaldu diren arren, aurreko praktika txikiarekin batera arauetan sakontzen da, bertan jokalariek jokoan dituzten betebeharrak eta eskubideak azaltzen dira. Arau hauetan ikasleak inplikatzeko da garrantzitsuena, horrela jolasaren parte sentitzeko eta haien arauak direla sentitzeko. Azpimarratu behar da parte-hartzaileek hauek batetzen badituzte bakarrik izango duela arrakasta jarduerak.

- **Garapena:** jolasa gauzatzen da, azken emaitzetara iritsi arte. Ezin izango da hasi parte-hartzaile guztiek jolasa ulertu arte.
- **Aldaerak:** jolasa amaitu ondoren, irakasleak jolas horren aldaerak egin ditzake, edo ikasleek proposatu aldaketa desberdinak aurrera eramateko.
- **Ebaluazioa:** hemen jokoan lortutako emaitzak ebaluatzen dira, jardueraren hasieran ezarritako helburuetatik abiatuta.

### ***Jolas kooperatiboen onurak***

Kooperatiboki jolastuz gero, partaideek partekatzen eta elkar laguntzen, gainerakoekin harremanetan aritzen, gainerakoek sentimenduak gogoan izaten eta helmuga komunitate iristeko laguntzen ikasten dute. Horrelako jolasek talde-sentimendua estimulatu dute, taldearen baitan kide bakoitzaren indibidualtasuna onartua dago, eta aldi berean parte hartzaileen artean berdintasun giroko harremanak (Mondragon unibertsitatea, 2009). Laburbilduz, taldekideen artean komunikatzea, elkar laguntzea eta partekatzea sustatzen dira.

Jolas mota hauen bitartez ikuspegi ezberdin bat ezartzen da, ikasleen arteko lehiakortasuna ezabatuz besteak beste. Lehiakortasunak, batzuetan jokoak bereak dituen atsegina eta gozamenaren apurta ditzazkeelako, haurrek irabazteko jolasten dutelako eta ez ongi pasatzeko. Kanporaketak ere alde batera uzten dira, badaudelako huts egitean jokalaria kanporatzen dituzten edo trebezia gutxienekoak zigortzen dituzten jokoak, trebeziak hobetzeko aukerak galarazten dituztenak (Mondragon unibertsitatea, 2009).

Jolas kooperatiboak gelan martxan jartzerakoan, zailtasun edo oztopo desberdinak aurki daitezke, hauen artean aurretiko ikaskuntzak, egozentrismoa edo lehiatzeko joera. Jarduera kooperatiboetan kontuan artu behar dira ikasleek dituzten aurretiko ezagutzak, hauetara egokitzeko eta ikasleek modu esanguratsu batean ikasteko. Bestetik, ikasleek pentsakera egozentrikoa erakutsi dezakete, non norberaren iritzia den bakarra eta besteek errepetatutako behar dutena. Kasu honetan, irakasleak ahalbidetu behar dituzte errealitatea hautemateko bestelako modu eta egoerak, egozentrismotik hurruntzeko esperientzia berriak. Bukatzeko, lehiatzeko eta indibidualtasunarekiko joera erakutsi dezakete ikasleek, horregatik planteatzen den proposamen kooperatiboak behar bezain erakargarria izan behar du ikasleek erronka pertsonala, autosuperatzeko nahia eta taldeko lorpenarekiko gustua aurkitzeko (Antón, 2011).

### **3. HELBURUAK**

Gradu Amaierako lan honen bitartez, helburu desberdinak planteatzen ditugu, gizarteari eskaini ahal diogunaren eta geuk lortu ditzakegun gaitasun profesionalen inguruan. Ikaskuntza zerbitzuaren metodologia jarraituz, komunitateari zerbitzu bat eskaintzen diogulako ezagutza akademiko eta esperientzialak jasotzen ditugun bitartean. Horregatik, hainbat helburu planteatzen ditugu lan honekin:

- Ikaskuntza zerbitzuaren eredu pedagogikoak eskaintzen dituen aukerak praktikan jartzea eta honetaz ikastea.
- Graduan zehar neureganaturiko ezagutzak praktikan jartzea.
- Proiektu bat hasieratik era autonomoan planifikatu eta aurrera eramatea.
- Sortu daitezkeen gatazka edo egoera desberdineei erantzun bat bilatzen jakitea.
- Proiektu baten arduraduna izatea, hasieratik amaierarte ardura guztia hartu eta sortzen dire ezustekoi aurre egitea.

Bestalde, eskaini dugun zerbitzuarekin beste hainbat helburu zehatzagoak planteatzen ditugu:

- Desberdintasunak gutxitzea eta gizarte bidezkoagoa zein inklusiboagoa eraikitzea.
- Justizia soziala eta berdintasuna lortzeko zerbitzu bat diseinatzea.
- Hirian aurkitu daitezkeen aukerak eta baliabideak neurri batean herrira eraman ahal izatea.
- Komunitate jakin bateko haurrek duten behar bati erantzuna ematea.
- Sedentarismoa ekiditea.
- Euskararen erabilera indartzea, inguru euskaldun batean.
- Etorkizuneko irakasle bezala, aurrerago erabilgarriak izango zaizkidan esperientzia eta ikaskuntza berriak eskuratzea.

### **4. METODOA**

#### **4.1 ESZENATOKIAREN DESKRIBAPENA.**

Kanpezu, Arabako Mendialdean kokaturiko mila biztanle inguruko herri txiki bat da. Inguruko herrietariko handiena da eta zerbitzu desberdinak eskaintzen ditu bertako eta inguruko herrietako biztanleentzat, hala nola, ikastola, osasun-zentroa, farmazia, janari

dendak, liburutegia, gasolindegia etab. Azken urteetan COVID egoera dela eta, turismoak gora egin du asteburu eta uda aldean, horregatik, gaur egun hiru landetxe eta autokarabana parking-a daude martxan. Honek herria indartu du, bizitza handiagoa ekarri du etaaldi berean lanpostu berriak ere. Biztanleriak gora egin du ere, urte osoan bertan bizi den jendea dago baita asteburuetarako eta udarako bigarren erresidentzia bezala erabiltzen dutenak, horregatik, udan eguraldi onarekin eta herriko igerilekuen zabalerarekin batera herriko biztanleria bikoiztu egiten da negukoarekin konparatuz. Urte osoan zehar Kanpezun bizi den jende nagusiaz gain, herriko gazte askok bertan haien familia sortzea erabaki dute eta familia atzerritar asko ere hemen herritartu dira. Maila sozio-ekonomikoa erdi mailakoa da nagusi, herriko eta inguruko lantegi eta zerbitzuetan edo gertu dauden Gasteiz edo Lizarrako hirietan egiten du lan gehiengoak.

Aipatu bezala, Kanpezun zerbitzu desberdinak daude hauen artean hezkuntza publikoa, haur eskola, ikastola eta institutua ditu. Mendialdea IPI da Kanpezuko eskola, D ereduko ikastetxe publikoa eta institutua amaitu arte haurrak herrian ikastea ahalbidetzen du, gero Gasteizera joaten dira ikasketak jarraitzera. Kanpezuko eta inguruko herrietako haurrak jasotzen ditu ikastetxeak bai Arabako zein Nafarroakoak, Kanpezu Nafarroarekin muga egiten duelako. Herriarekin bat egiten duen ikastetxea da, bertako jende asko egiten du lan eskolan, erlazio estua du udaletxearekin eta herriak eskaintzen dituen baliabide desberdinak aprobetxatzen ditu.

Inguruak berak, aukera handiak eskaintzen ditu espazio natural asko eta parkeak ere, honetaz gain aukera dago median ibiltzeko, bizikletaz, zaldiketean, arrantzan, eskaladan, golfean etab. Astean zehar eskolaz kanpoko ekintzak egiten dira, futbito, marrazketa, saskibaloia, dantza eta musika dituzte aukeratzeko. Honetaz gain, herrian badaude ludoteka eta gaztelekua arratsaldero zabalik, eta polikiroldegia edo frontoia bezalako instalakuntzak daude ere herritarren eskura. Gure zerbitzua aurrera eraman ahal izateko herriko frontoia eta ondoan dagoen parkea erabili ditugu hain zuzen. Frontoi handia da, berogailua eta komunak dituenak, herriaren erdigunean dago eta honen aurrean parke bat dago. Parkea berriz txikia da, putzu bat eta zabuak dituenak lur bigunarekin haurrek min handirik ez hartzeko, irekita dago eta edozeinek disfrutatu dezake.

Baliabide asko ditugun arren, asteburuetan herrian eta inguruko herrietan ez dago normalean haurrentzako kirol eskaintzarik ez bada egun bereziren batean. Ekintza kultural ugari ospatzen dira, baina hala ere neguan ekintza gutxiago daude eguraldi onarekin gehiago dagoelako egiteko herrian. Honek suposatzen du larunbat goizetan haurrak eguraldiaren arabera edo gurasoen arabera etxean gelditzea, bestela, beti haur berdinekin




elkartzea. Egoera honetan haurrak dira pertsona kaltetuak, hirian egon daitezkeen baliabide eta ekintzak ez daude haien eskura Kanpezuko inguruan. Horregatik, gure zerbitzua Kanpezun egitea erabaki dugu, inguruko herrietatik baliabide gehien eskaintzen dituen delako, honek inguruko herrietako familientzako erreferentzia puntu bihurtzen du eta honek aldi berean gure zerbitzuan lagundu dezakeelako.

#### 4.2 PARTE-HARTZAILEAK.

Proposatzen dugun zerbitzu honen helburua, asteburuetan herriko hurrei ondo pasatzeko eta aldi berean jarduera fisikoa egiteko baliabide bat eskaintzea da. Kanpezu inguratzen duten herri txiki desberdinetako haurrak elkartuz, baita asteburuetan bakarrik datozenak, horrela konexioa sortzea herriko haurren artean, dohainik eta denen eskura dagoen zerbitzu baten bidez. Horrela, sedentarismoa ekiditeko eta euskararen erabilera indartzeko herriak eskaintzen dituen baliabideak aprobetxatuko ditugu, nire kasuan guzti hau jolas kooperatiboan bitartez landuz. Eskaintzen dugun zerbitzua larunbat goizetan da, 10:00-13:00 bitartean Kanpezuko frontoian edo parkean eguraldiaren arabera. Lau astez egin dugu, hau da, lau saio burutu ditugu eta jolas kooperatiboak eta gorputz adierazpena landuko dira, saio erdia eskainiz gai bakoitzari.

Gure zerbitzuaren parte-hartzaileak herriko eta inguruko haurrak izan dira. Gure lehenengo saioan 20 haur bertaratu ziren eta gainerako hiruretan 12-15 haur bitartean egon ziren saio osoan zehar. Adinari dagokionez, 4-12 urterako haurrak egon ziren, lau urtetakoak lehenengo saioan bakarrik egon ziren gainerakoetan sei eta hamabi urte bitartekoak bakarrik. Bizilekuari dagokionez, 1.grafikoan ikusi daitezkeen bezala haurren gehiengoa Kanpezuko biztanleak izan ziren, gero asteburuetan Kanpezura etortzen direnak eta inguruko herrietako batzuk ere egon ziren Zuñiga, Antoñana, Aguilar de Codes eta Orbisokoak.

1.grafikoa: parte-hartzaileen bizilekua.



Aurreko datuak kontuan harturik, asteburuetan Kanpezura etortzen direnak izan ezik gainerako guztiak Kanpezuko ikastolan ikasten dute eta elkar ezagutzen dira nahiz eta maila desberdinetan egon. Bistaz gutxienez ezagunak dira, batzuk erlazio estuagoa zuten beste batzuk batere ez eta zerbitzuaren bidez elkar ezagutu dira. Asteburuetan datozen haurrak, ezaguna duten herriko beste batekin gutxienez etorri dira eta haientzat bazeuden ezagutzen ez zituzten pertsonak, haur berriak ezagutu dituzte beraz. Guztiek ikastoletan ikasten dutenez euskara ulertzeko arazorik ez dute izan, hitz egiterako orduan batzuk besteak baino gehiago saiatu diren arren.

#### 4.3 PROZEDURA.

Gure zerbitzua martxan jarri aurretik lan handia egin behar izan genuen Kanpezun zerotik sortu dugun proiektu hau aurrera eraman ahal izateko. Zerbitzu hau burutzeko Elena Santaren, Zuñigako bizilaguna eta ni elkartu ginen, zerbitzu berdinean lan egin genuen baino bakoitzak bere espazioa izanik honen barruan. Zerbitzua aukeratu genuen, hau garatu, koordinazio bilerak egin, udaletxearekin kontaktuan jarri eta azkenik zerbitzua iragarri genuen. Hasierako prozesua izan zen zailena, zerbitzuaren aukeraketa, zein zerbitzu eskaini, non, haurrei bideraturik zegoena eta gure posibilitateen barruan egotea. Horretarako, inguruko diagnostikoa egin genuen, zehazki Kanpezuko herriak haurrei eskaintzen dizkien aukera eta baliabideak aztertuz eta hutsune bat ikusi genuen asteburu goizetan, horrela erabaki genuen 6-12 urte bitarteko haurrentzako jolasak egitea larunbat goizetan. Ideia argi izan genuenean, Kanpezuko udaletxearekin lehenengo kontaktu bat izan genuen korreo bidez, gure burua eta zerbitzuaren ideia orokor bat aurkeztuz eta hauen baiezkora jaso genuenean zerbitzua garatzen jarraitu genuen.

Zerbitzuaren ideia nagusia izan genuenean, pixkanaka ideia hau garatuz joan ginen lan pertsonala eta bion arteko bilerak tartekatuz, lau koordinazio bilera zehazki, zerbitzuak

Elena eta bion artean zentzua izateko eta egin beharrekoak noiz eta nola zehazteko. Behin zerbitzuaren detaile guztiak zehaztuta, programazioa (1.eranskina) guztiz prestatua, udaletxearekin kontaktuan jarri ginen gure proposamenaren nondik norakoak azaltzeko eta instalazioak eskatzeko. Horretarako, telefono bidez kultura zinegotziarekin aurrez aurreko bilera bat hitzartu genuen, berak herriko frontoia erreserbatu zigun zehazturiko datetan eta bertan dagoen materiala ere eskaini zigun behar izanez gero. Herriko frontoia eskatu genuen, herriaren erdigunean dagoelako eta honen kanpoan parke bat dagoelako, horrela eguraldiaren arabera kanpoaldean edo barruan egin ahal izateko. Hasieratik proposamena gustatu egin zitzaion, herrikoek herriarentzat zerbitzu bat eskaintzea eskertu zuten eta guztiz lagundu gintuzten.

Zerbitzuaren aurrera eraman aurretik bete beharreko azken urratsa zerbitzua iragartzea izan zen. Gaur egun, eraginkorrena teknologia erabiltzea da eta inguruko ahalik eta familia gehienei heltzea denez gure helburua honetan jarri genuen fokua. Horretarako, kartel bat egin genuen (2.eranskina), ahalik eta argiena eta erakargarriena eta hau whatsapp bidez zabaldu genuen. Kartelean gure telefonoak jarri genituen haurrak apuntatzeko, horrela etorriko ziren haurren kopuruaren ideia bat izateko. Kanpezukoa izanik herriko talde desberdinetan nago eta herritar askori zabaltzeko aukera dut, gainera ikastolako AMPA-ko ama batekin kontaktuan jarri ginen ere berak zabaltzeko guraso gehiagori. Gure sare sozialetan ere iragarri egin genuen, gainera, herrian zehar kartelak ipini genituen, ikastolara eta herriko ludotekara eraman genituen eta inguruko herrietan ere ipini genituen.

Lehenengo saioa ezin izan genuen aurrera eraman ez zelako haurrik agertu, hiru haur bakarrik genituen konfirmaturik eta hirurekin ezinezkoa ikusi genuen saioa burutzea. Zerbitzuaren programazioa egiterakoan ez ginen konturatu lehenengo asteburua inauterietako asteburua zela, hori izan zitekeen inor ez etortzearen arrazoi nagusia edo guk zerbitzua nahikoa iragarri ez izana. Horregatik, zerbitzua aste bat gehiagoz iragarri genuen eta udaletxearekin kontaktuan jarri ginen frontoia aste bat gehiagoz erreserbatzeko. Kartela gure sare sozialetan eskegi genuen astean zehar, whatsapp bidez gehiago zabaldu genuen jendeari birgogoratzeko, kartel gehiago jarri genituen eta ezagutzen genituen familiei pertsonalki azaldu genien gure zerbitzua. Honetaz gain, ikastolako zuzendariarekin kontaktuan jarri jarri ginen telefonoz, horrela, ikastolara kartela banakako gonbidapen bezala eraman genuen, apuntatzeko telefono zenbakirik gabe, ordua eta tokia jarriz besterik ez. Ikastolako haur guztiei banatu genizkien, 6-12 urte bitarteko ikasleei etxera eramateko ohar baten moduan. Horrela, lau saioak aurrera eraman genituen eta bukatzean eskerrak eman genizkien kultura zinegotziari eta zuzendariari pertsonalki, Kanpezuko bizilagunak

baitira. Bukatzeko, balorazio bilera bat egin genuen egindakoaz hausnartzeko eta zenbait datu komunean jartzeko (ikusi 2.taula).

2.taula:kronograma.

KRONOGRAMA	1. FASEA							2. FASEA						3. FASEA	
	Aza. - Abe nd.	Aben. 20	Urtarr. 10	Urtarr. 19	Urtarr. 28	Ots. 4	Ots. 12-26	Ots. 26	Ots.26 - Martx. 5	Martx 5	Martx. 12	Martx 19	Martx 26	Martx. 27	Apiri. 2
Zerbitzua aukeratu															
1. koordinazio bilera															
2.koordinazio bilera															
3.koordinazio bilera															
4.koordinazio bilera															
Udaletxearekin bilera															
Zerbitzua iragarri															
1.saioa (bertan behera)															
1.saioa															
2.saioa															
3.saioa															
4.saioa															
Udaletxeari eskerrak															
Balorazio bilera															

#### 4.4 TRESNAK

Gure zerbitzua aurrera eramán bitartean informazioa jasotzeko tresna desberdinak erabili genituen zerrenda, egunerokoa, behaketa eta elkarrizketa zuzenak, ebaluazio fitxak eta argazkiak. Hasteko, saio bakoitzaren hasieran “Nor Etorri Da?” zerrenda bete zuten haurrek, izena, adina eta bizilekua zehaztuz. Horrela, egun bakoitzean etorritako haur kopurua erregistratu ahal izan genuen, zein adinekin eta nondik etorri ziren, gure zerbitzuaren parte-hartzaileak nortzuk izan ziren ondorioztatzeko. Honetaz gain, saioan zehar behatzea eta hurrei eta inguruari adi egoten informazio asko jasotzen lagundu zigun, batez ere haurrekin hitz egiten. Gainera, saio bakoitzaren bukaeran gurasoak haurren bila etorri zirenean haiekin hitz egin genuen, modu informal batean zerbitzua erabilgarria izan zen eta ea hurrengo egunetan bueltatuko ziren jakiteko.

Saio bakoitzaren amaieran, borobilean eserita saioaren balorazio orokor bat egin genuen, gustura egon ziren jakiteko, bizitako zerbait komentatzeko edo hurrengo egunetarako proposamenak egiteko. Modu erlaxatu batean nahi zuenak hitz egiteko momentua izan zen, saioa borobiltzeko eta saioan zehar agian guri ihes egin zitzaizkigun gertaerei buruz gehiago jakiteko ere. Honen ostean, haur bakoitzari, anonimoa zen ebaluazio fitxa (3.eranskina) bat eman genien betetzeko, errubrika eta galdera erraz batzuk zituenak. Errubrikaren bitartez haurrek saioan zehar bizitakoaren autoebaluazio bat egiten zuten, parte-hartzea, talde-lana edo errespetuari dagokionez eta saioa baloratzen zuten ere kolorezko emotikonoen bitartez, berde hori eta gorri eskala erabiliz. Azpian hiru galdera zituzten, gehien gustatu zitzaien jarduera zein izan zen jakiteko, gutxien gustatu zitzaiena eta aldatuko zuketena saio honetan edo hurrengo saioari begira.

Azkenik, egunerokoa (4.eranskina) erabili genuen saioak amaitu eta gero hauetan gertaturiko guztia jaso ahal izateko. Egunerokoan saioaren garapen osoa, izandako faktore errestatzaile eta oztopatzaileak, egindako aldaketak, gertaera kritikoak, bizi izandakoa, balorazioa eta jasotako ebidentziak apuntatu genituen. Saio osoari buruz hausnarketa sakon bat egitea suposatzen zuen horrek, gure ikuspuntutik bizitakoaren narrazio bat zen aurretik aipaturiko baliabideen bitartez sortzen zena. Gainera, ebidentzietan saioan zehar harturiko argazkiak, erabilitako materiala eta haurren sorkuntzek egun hori birgogoratzen lagundu gaituzte, bizi izandako errealitatearekin konektatuz.

## 4.5 ANALISIA

Aurretik aipaturiko tresna desberdinen bitartez zerbitzuan gertatutakoaz jaso genuen informazioa, honekin emaitzen analisia egin genuen gero ondorioak atera ahal izateko. Analisi hau aurrera eramateko, lehenik eta behin jasotako informazio guztia antolatu genuen kodeak erabiliz. Ondoren, sistema kategorial bat erabiliz kategoriatu eta azpikategoria desberdinak ezarri genituen eta hauek alfabetikoki ordenatu. Jarraian, kategorizaturiko materiala irakurri eta beharrezkoa berrantolatu ostean ahotsak laburtu genituen. Laburtzearekin batera, kategoriak ezabatu eta ahots esanguratsuenekin bakarrik geratu ginen, eta amaitzeko emaitzen aurkezpenarako atal bakoitzaren interpretazio edo hausnarketa pertsonala egin genuen eta grafiko bat sortu kategorizazioa bisualagoa izateko.

## 4.6 IRIZPIDE ETIKOAK

Zerbitzu osoan zehar haurren anonimatoa eta haien identitatearen zaintza lehenetsi ditugu. Saiotetan zehar harturiko argazkietan saiatu ginen haien aurpegiak ez agertzea eta bestela emotikono bidez estali genituen, gainera, zerrendetako haien izenak, abizenik gabe, eta adinak ere gorde egin ziren eta argazkiak bezala ez ziren inon publikatu, pribatuak Baitira. Jasotako informazio eta material guztia lan honetarako besterik ez da erabiliko, eta ez da parte-hartzaileen identitatea lan osoan zehar agerian jarri.

# 5. EMAITZAK

Zerbitzuan zehar informazioa biltzeko tresnen bitartez jasotako emaitzak aztertu ditugu, horrela zerbitzua baloratu ahal izateko eta ondorioak ateratzeko. Honetarako, jasotako datuak kategorizatu ditugu planifikazioa, harremanak, inzidente kritikoak, sentipenak eta esperientzia eta anekdotak izeneko dimentsioetan, eta hauen barruan kategoriatu eta azpikategoria desberdinak. Gero hauek analizatu ditugu eta era labur eta ordenatu batean aurkeztu ditugu hurrengo orrietan.

## 5.1 PLANIFIKAZIOA

### 5.1.1 ASPEKTU METODOLOGIKOAK

#### ***Zein arau jarri dira eta zergatik?***

Haurrentzako esperientzia positiboa eta dibertigarria bilatu dugu, gustura egoteko eta

dibertitzeko haiek erabaki dutelako etorri ala ez, horregatik arau orokorrak besterik ez ditugu ezarri hasieratik, minik ez eman, beste haurrak errespetatu, ingurua errespetatu etab. Gero, saio bakoitzean konturatu ginen aurrera egiteko beste arau batzuk behar genituela eta pixkanaka erabakiak hartzen joan ginen bikoteak guk sortzen jarduera batzuetan, beti bikote berdinak ez izateko, edo parkeko putzuan dauden zapaburuak ez ukitzea adibidez.

Ez da gertaera berezirik egon, baina parkera heldu garenean bertan putzu bat dago zapaburuekin eta haiekin jolasten hasi dira bi haur, hauek uretatik ateratzen eta pote batean sartzen. Azaldu diet ondo dagoela ikustea baina ezin direla animaliak horrela tratatu, ur barruan egon behar direla lasai guk haiek molestatu gabe. (Egunerokoa, 2.saioa, 2022/03/12)



(Parkea, 2.saioa, 2022/03/12)

Orokorrean arauak errespetatu egin dituzte, hasieran planteaturiko arauak seguruenik ikastolan eta edozein eremutan erabiltzen dituztenak direlako, elkarbitza on bat bermatzeko. Pixkanaka saioetan behar izan ditugun arauak ezartzen joan gara saioa aurrera eramanez ahal izateko, ondo hartu dituzte hauek, arau sinpleak eta logikoak zirelako. Arauak ezarri ditugu baina haurren askatasuna errespetatuz, oreka bilatuz eta arauen zergatika justifikatuz. Zapaburuekin zergatik ezin den jolastu azalduz gero, arrazoituz, orduan hausnartu eta berehala ulertu eta egiteari utzi diote.

### ***Zein eragin izan du espazio eta materialak?***

Saioak aurrera eramateko bi eremu erabili ditugu, eta eguraldi onarekin beti parkera irten gara saioa egitera. Horretarako, frontoiaren atean kartel bat jarri dugu berandu zetozen haurrak eta gurasoak abisatzeko, horrela saioa musukorik gabe egin ahal izan dugu kanpoan. Honek, aukera eman digu inguruak eskaintzen zigun materiala erabiltzeko eta bozgorailua eduki dugu egunero saioa girotzeko.



Gaurkoan ere eguraldi ona egiten zuen, eguzkirik ez baina temperatura atsegina kalean egoteko, eta musukoa kentzekotan nahiago izan dugu parkean egin. Aurrekoan bezala egin dugu, frontoian itxaron haurren gehiengoa etorri arte, materiala parkera eraman eta frontoiko atean kartel bat jarri non gauden jakiteko, ondoan dago baina badaezpada jarri dugu berandu etorri diren haurrentzat eta saio amaieran haurren bila etortzen diren gurasoentzat. (Egunerokoa, 3.saioa, 2022/03/19).

Lehenengo jarduerarako nahikoa material ez genuenez, inguruak eskaintzen dizkigun naturako elementuak jasotzera joan gara makilak eta pinaburuak. Paseo bat eman dugu ingurutik eta azkenean denek jolastu dute aurkitu duten elementuekin eta ez guk ekarritako materialarekin. (Egunerokoa, 2.saioa, 2022/03/12)



(Parkea, 3.saioa, 2022/03/19)

Saioak aurrera eraman ahal izateko bi eremu desberdin izateak asko lagundu digu, batez ere eguraldiaren arabera mugitu egin ahal izan garelako. Frontoia eremu handia da eta soberan izan dugu espazioa baina kanpoan egoteak beste mota bateko askatasuna ematen du, aire librean egoteak eta gainera musukoa kendu ahal izateak izugarri eskertzen dute haurrek eta giro lasaiago bat nabaritzen da frontoiarekin alderatuta. Parkean zabuak daude eta putzu handi bat, hauek batez ere distrazioa izan dira saioen hasieran baina erabili egin ditugu ere, espazioaren parte zirelako eta hain erakargarriak izanik hobeto jardueretan integratu hauetatik kanpo utzi baino, inguruak ematen diguna aprobeztatu dugu orokorrean. Gainera, musika erabili dugu egunero, bai jarduera batzuetarako edo bestela girotzeko besterik ez, gaur egungo euskal musika, haurrei galdetzen genien zer zer ezagutzen eta gustatzen zitzaizkien abestiak.

### 5.1.2 PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

### ***Zein aldaketa egin behar izan ditugu?***

Saioei hasiera emateko hurrek ebaluazio fitxetan edo momentuan botazio bidez aukeraturiko haien gustuko jolas bat erabili dugu lehenengo saiotik aurrera. Gainera, oso gustukoa egin zaizkien jarduerari denbora gehiago eskaini diegu eta honek suposatzen du beste batzuk egin gabe geratzea. Egin ditugun jarduerak ere momentuaren arabera moldatu egin ditugu hurren beharretara, eta haiek ere proposamenak egin dizkigute.

Beretzeko haiei proposatu diet jolas bat pentsatzea eta “bonba” jolasa aukeratu dute, horretarako nola jolasten den birpasatu dugu, aldaera desberdinak daudelako, eta nola jolastuko dugun erabaki dugunean hasi gara. Asko gustatzen zaien jolasa denez nahiko luzatu gara, baina gutxi kostatu zaigu hurrengo jarduerara pasatzea puxikak atera ditugunean. (Egunerokoa, 3.saioa, 2022/03/19)

Saio bakoitzaren programazioa prestatu genuen, egun horretan egiteko jarduerak guztiekin, baina hau erreferentzia bezala besterik ez dugu erabili. Ez da programazio itxi bat izan non jarduerak guztiak egin behar diren hasieran planteatu bezala, momentuaren arabera egokiena zena egiten saiatu gara, horretarako aldaketak egin ditugu egunero saioaren helburua mantenduz. Hurren interesak kontuan hartu ditugu eta erabakitzeko aukera ere, haietarako prestatutako saio batean haien iritzia ezinbestekoa delako eta honek saioaren parte egin dugu eta aldi berean motibatuz. Ia ordu eta erdi jolas kooperatiboak egitea astuna egiten zitzaien, horregatik ezagunak eta ondo pasatzeko jarduerak ere gehitu ditugu, eta gehien gustatu zaizkien jolas kooperatiboak espazio handiagoa eskaini diegu.

### ***Esku-hartzearen ze nolako erantzuna eta balorazioa egin dute parte-hartzaileek?***

Hurrek, ebaluazio fitxen bitartez haien jarrera eta saioa baloratu dute egunero. Honekin batera, haien jarduerarik gustukoena eta gutxien gustatu zaiena ere adierazi dute eta hobekuntza proposamenak. Azken honetan, hurrengo egunetan egiteko haien gustuko jolasak idatzi dituzte eta gehiagotan egitea edo denbora gehiago eskaintzea egindako jarduerak gustukoenera.

Positiboki baloratzen dut saio hau, hurrek dibertitu dira, jarduerak desberdinak egin ditugu eta hurrek berriak etorri eta ezagutu ditugu. Ebaluazio fitxek dagokienez, gehien gustatu zaien jarduerak “gogoan izan” izan da eta gutxien gustatu zaiena “erreleboak”, orokorrean ondo pasatu eta parte hartu dutela adierazi dute, eta behin ere proposamenak haien gustuko jolasak izan dira armiarma, bonba, ezkutaketa etab.

(Egunerokoa, 3.saioa, 2022/03/19)

Haurrak parte-hartzeko gogoz etorri dira egunero, eta guk proposaturiko jardueretan inplikatu dira guztiak maila handiagoan ala txikiagoan. Inplikaturik egoteak eta gogoekin etortzeak aldaerak proposatzea ekarri du, behin baino gehiagotan era natural batean jarduerak hobetzeko edo beste erabilera bat emateko proposamenak egin dizkigute.

Bigarren jardueran, nik ekarri ditut bikoteak egiteko txartelak, baina bi talde egin ditugunez bost bikote zituzten bakarrik talde bakoitzak, eta erraza egin zaie jarduera. Horregatik, haur batek galdetu dit ea txartel gehiago egin ahal genituen eta horrela talde bakoitzak bost bikote gehiago egin ditu jolasteko, haien iniziatiba izan da eta kartulinak eta margoak bagenituen hauek egiteko. Horrela, zailtasuna eman diote jolasari haiek sortutako materialarekin. (Egunerokoa, 2.saioa, 2022/03/12)



(Haurrek sorturiko materiala, 2.saioa, 2022/03/12)

Haurrei askatasun eta konfiantza nahikoa eman diegu haien aldaerak proposatzeko eta guk hauek aurrera eramateko, saioaren parte egin nahi izan ditugulako hasieratik eta haien proposamenak entzun bakarrik ez, martxan jarri ditugu. Aldaera hauek jarduerari beste perspektiba bat eman diete askotan eta ikasteko balio izan digu guri. Gainera, haien ebaluazio fitxak irakurri eta kontuan izan ditugu gehien errepikatzen ziren proposamenak erabiltzeko hurrengo saioetan, haien gustuko jolasak. Haurren erabakiak kontuan hartzea eta praktikan jartzea zuzenean haien motibazioa ekartzen du, haien erabakiak direlako eta gurekin batera saioa hobetzearen parte direlako. Gutxi izanda erraza da guztiengana heltzea eta guztiak entzutea, agian klasean zailagoa egiten zaie baina hemen aukera daukate pentsatzen dutena eta laguntzeko ideiak askatzeko, horrek izugarritzko poztasuna ematen digu.

### 5.1.3 FAKTORE ERRESTATZAILE ETA OZTOPATZAILEAK

#### ***Zein faktore errastatzaile eta oztopatzaile aurkitu ditugu?***

Udaletxeak frontoia eta bertan dagoen materiala utzi dizkigu bost aste hauetan, horrela aukera izan dugu saioa parkean edo frontoian egiteko eguraldiaren arabera eta parkean egon bagara komunak eta ura edatekoa aukera frontoian eduki dugu. Gainera, parkea irekia denez, bertara edozein joan daiteke eta haur bat baino gehiago bertan zegoen jadanik jolasten eta gu hara joatean saiora batu da. Haurren jarrera eta parte-hartzeko gogoek saioa izugarri erraztu dute baita Elenaren laguntzak ere. Saioak aurrera egin ahala haur batzuk hasieratik egon direnez geroz eta gehiago ezagutzen joan gara.

Behin ere eguraldiari esker giro atsegina izan dugu parkean, gainera parke irekia denez bi haur joan zeuden bertan jolastera eta jolasten ikusi gaituztenean gurekin geratu dira, kanpoan egiteak aukera eman die gurekin topo egiteko. Bestalde, haurrak badakite ondo pasatzera eta jolastera datozela eta energiaz beterik eta gogoz etortzen dira, honek saioa aurrera eramatea ahalbidetzen digu. (Egunerokoa, 3.saioa, 2022/03/19)

Gaurko eguraldia eta haurrak jadanik ezagutzea izan dira faktore errestatzaile handienak. Eguraldi onak saioa kanpoan egitea ahalbidetu digu eta giro lasaiagoa ekarri du parkean egonda, askatasun handiagoa eta haurrentzako oso ezaguna den eremu bat. Gainera, gaurkoan etorri diren haur guztiak aurreko larunbatean egondakoak dira, jadanik elkar ezagutzen dira eta guk ere ezagutzen ditugu. (Egunerokoa, 2.saioa, 2022/03/12)

Zerbitzuaren lehenengo egunean ez zen haurrik etorri, orduan ezin izan genuen saioa aurrera eraman. Programazioa egin genuenean ez ginen konturatu inauteriak zirela gure lehenengo saioaren asteburuan, hori izan zitekeen inor ez etortzearen zergatia edo nahikoa ez iragarri izana. Hurrengo egunetan haurrak etorri dira baina gu jakin gabe zenbat etorriko ziren eta ez dira denak ordu berdinean etorri, saioa martxan egon bitartean batu dira haurrak egunero.

Bestalde, haurrak pixkanaka pixkanaka etortzen hasi dira eta honek saioa moteldu du, hasieran zazpi ziren eta azkenean hogeitau haur bukatu dute jolasten. Askok esan digute hamarrak oso goiz dela hasteko, beste batzuentzat berriz ondo dagoela ordutegia, guk ordutegi aproposa ikusten dugu eta horrela mantenduko dugu. Tantaka haurrak

etortzea eskertzen dugun arren, kaosa izan da batzuetan, jolasa eten behar zen haur berriei azaltzeko eta momentu batzuetan zaila izan da planifikatutakoa jarraitzea, batez ere bigarren zatian, hamaiketarik aurrera etorri direlako haur gehienak. (Egunerokoa, 1.saioa, 2022/03/05)

Espero genuen bezala zerbitzua erraztu dizkiguten faktoreak egon dira eta zaildu dutenak ere. Faktore erreztatzaile bezala, ikastola eta udaletxearen laguntza giltza izan dira saioak aurrera eramateko eta bestalde haurren jarrera. Bi alderdi hauek lagundu eta motibatu gaituzte saio bakoitzean, entitateen eta familiek gudan konfiantza izateak ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzen ahalegintzera eraman gaitu. Aldi berean, bertakoak izatea eta herrian ezagunak, presioa gehitu digu ezin genuen huts egin gudan konfiantza jarri dutenei. Zerbitzua beste pertsona batekin egiteak segurtasuna eman dit momentu askotan, udaletxearekin edo ikastolarekin hitz egin dugunean edo saioan zehar laguntzaile bezala edozein ezusteko gertatzerakoan. Faktore oztopatzaileak gutxi izan dira eta ez dute gure zerbitzua arriskuan jarri, hauetara moldatu gara edo aurre egin diegu.

## 5.2 HARREMANAK

### 5.2.1 PARTE-HARTZAILEEN ARTEKO HARREMANAK

#### ***Nolakoak izan dira haurren arteko harremanak?***

Haurren gehiengoa haien artean ezagutzen ziren eta jolas kooperatiboen bitartez talde-lanean aritu dira momentu gehienetan. Adin desberdinetakoak izateak, 6-12 urte bitartekoak, elkarri laguntzea ekarri du, haien kabuz modu natural batean. Gaizki ulertuak eta haserre txikiak ere egon dira, baina lehenengo haien kabuz hitz egiten eta bestela gure laguntzarekin erraz konpondu diren egoerak besterik ez.

Adin desberdinetako haurrak elkartzea beldurra ematen zidan, batzuk aspertuko zirelakoan eta besteak ez zutelako ulertuko, baina nagusiek txikiei azaldu dizkiete jarduerak eta taldeetan haiekin banatu dira jarduerak aurrera eramanez. Hunkigarria izan da hori haien kabuz egitea, guk behartu gabe haiek hartu dute txikiei azaltzeko inizatiba eta haien taldeetan hartzeko ardura, honek izugarri erraztu du saioa. (Egunerokoa, 1.saioa, 2022/03/05)

Atzo haur baten urtebetetzea izan zen eta gaur piruletak ekarri dizkigu guztioi. (Egunerokoa, 3.saioa, 2022/03/19)

Haur guztiak bistaz gutxienez ezagutzen ziren, eta hauen gehiengoak asteburuetan datozenak izan ezik Kanpezuko ikastolan ikasten dute elkarrekin nahiz eta maila desberdinetan egon. Bistaz gutxienez ezagunak izateak konfiantzazko giro bat sortzen du, ez dira zerotik ezagutuko diren ezezagunak, horregatik erraztasun handiagoarekin erlaxatu eta diren bezalakoak izateko aukera izan dute hasieratik. Beldur handia genuen adin desberdintasuna gehiegizkoa izatea eta nagusienak aspertzea edo txikienak jarduerak ez ulertzea, baina hasieratik elkarri lagundu dira modu natural batean eta taldeak egiterako orduan nagusienak kontziente izan dira eta talde orekatuak egiten saiatu dira. Hala ere, liskar txikiak eta haserreak egon dira jardueretan, jolas kooperatiboak talde-lana eta guztien inplikazioa eskatzen du helburu bat lortzeko eta frustragarria izatera iritsi daiteke momentu batzuetan, baina haien artean hitz eginez edo bestela gure laguntzarekin erraz konpondu diren gatazkak izan dira.

## 5.2.2 IRAKASLEEKIKO JARRERA

### ***Nolako jarrera erakutsi dute hurrek gurekiko?***

Beti errespetuz eta laguntasunez tratatu gaituzte hurrek, haiek gu eta gu haiek. Egunak pasa ahala egunero etorri direnak hobeto ezagutu ditugu eta konfiantza handia sortu da gure artean.

Gaurkoan lasaiago egon gara, zeuden haur guztiak aurreko larunbatean egondakoak ziren, beraz ezagutzen genituen eta haiek gu. Horregatik konfiantza handiagoa izan dute gurekin hitz egiteko, astean zehar egindakoa kontatzeko, besarkatzeko, txantxetan ibiltzeko etab. (Egunerokoa, 2.saioa, 2022/03/12)

“Iruri egin dizut pultsera hau ze da azken eguna” haur batek opari bat ekarri dit azken egunean. (Landa oharra, 4.saioa, 2022/03/26)

Haurrak ondo pasatzera eta larunbat goiza aprobetxatzera etortzen dira, badakite ez daudela eskolan eta gu ez garela haien irakasleak eta nahi dutelako daudela hemen, hala ere oreka bilatu behar izan dugu arduradun eta lagun bezala. Haiekin jolastu dugu eta ondo pasatzea zen helburua, baina aldi berean muga batzuk jarri behar izan ditugu haien arduradunak izan garelako saioak irauten zuen tartean. Praktiketean harturiko esperientziak lagundu digu oreka hau bilatzen, baita gure bizitzan hurrekin izandako lan desberdinek ere. Azkenean, saio guztietara etortzen ziren haur taldearekin eta hauen gurasoekin harreman estua egin dugu, askatasun eta konfiantza handiagoarekin egon dira haiek eta gu, eta haurrak ondo ezagutzeak abantaila eman digu saioa aurrera eramaterako orduan.

## 5.2.3 GURASOEN ERANTZUNA

### ***Zein izan da gurasoen erantzuna?***

Haurrak ekartzen zituzten gurasoekin elkartu gara saio hasiera eta amaiera bakoitzean. Hasieran, saio amaieran haurrak norekin joan behar ziren jakiteko eta azkenean era informal batean hitz egiteko haurrei eta saioei buruz.

Egunero hurbildu gara gurasoak agurtzera saio bukaeran, baina gaur azkeneko eguna izanda eskerrak eman dizkiegu gudan konfiantza izateagatik eta haurrak saioetara ekartzeagatik. Oso eskertuta egon dira haiek, “horrela goizen egin-beharrekoak egiten ditut eta bitartean bera jolasten dago eta ez nirekin etxean edo asperturik errekaduak egiten” edo “horrela beste haurrekin jolasten du eta ez dago goiz osoa etxean telebistarekin” bezalakoak esan dizkigute. (Egunerokoa, 4.saioa, 2022/03/26)

Guraso gehienak aurretik ezagutzen gintuzten gutxienez bistaz, eta horrek konfiantza izugarria sortzen du haurrak beste norbaitekin uzterako orduan. Haurren erdia gutxi gora behera gurasoekin etorri dira eta beste erdia haien kabuz, nagusienak herritik bakarrik ibiltzen direlako jadanik. Lehenengo egunean ikusi genuen nor zetorren gurasoekin jakiteko bukatzerakoan norekin joan behar ziren, eta saio bukaera bakoitzean haiekin hitz egin dugu eta eskerrak eman dizkiegu gudan konfiantza izateagatik. Haurren hitzez gain, gurasoek animatu egin gaituzte eta eskerrak eman dizkigute haurrentzako baliabide hau eskaintzeagatik herrian.

## 5.3 INZIDENTE KRITIKOAK

### 5.3.1 GERTAERAK ETA HARTUTAKO ERABAKIAK

#### ***Zer nolako gertaera kritikoak bizi izan dira eta nola egin diegu aurre?***

Ez dira asko izan baina gertaera kritikoak izan ditugu, larritasun gutxikoak baina estutasunak sortu dizkigutenak nolabait. Hasteko, lehenengo egunean ez zelako haurrik agertu saioa aurrera eraman ahal izateko eta bertan behera gelditu zen hau. Gainera, saio batean haur batek parketik ihes egin zuen haserreturik. Beste batean, lau urteko bi haur etorri ziren eta haien gurasoei deitu egin behar izan genien ezin ginelako haietaz arduratu eta gainerako haurrekin saioa aurrera erman.

“Bonba” jolasten ari ginenean liskar txiki bat egon da bi haurren artean, pilota modu txarrean jaurti duelako batek eta aurpegian eman diolako besteari, horregatik haserretu eta parketik joan da. Gure ardurapean daude horregatik bere atzetik joan naiz gelditu eta lasaitu den arte, bitartean Elenak jarraitu du jolasarekin. Haurrarekin hitz egin dut eta parkera bueltatu egin gara beste haurrarekin hitz egitera eta arazoa konpondu dugu. Asteburua denez herriko kaleak itxita daude eta ia ez da kotxerik pasatzen, baina ala ere arriskutsua izan daiteke adi ez bazaude. (Egunerokoa, 3.saioa, 2022/03/19)

Egon diren gertaera kritikoak ez genituen espero, agian beste batek aurreikusi ahal zituen baina momentuan guk ez. Egoera hauen aurrean garrantzitsuena berehalako erantzun eraginkor bat bilatzea da eta horrela egiten saiatu gara. Lehenengo saioan ez zen inor etorri baina hurrengorako iragartzeko estrategia hobeago bat pentsatu genuen, haurrak parketik ihes egin zuenean bat beraren atzetik joan zen eta besteak bitartean saioarekin jarraitu zuen, eta lau urteko haurrak aspertu zirenean bere gurasoei deitu genien ezin guelako haien pendiente egon eta aldi berean beste haur guztiekin jarduerak egin. Esperientziak eta momentuan erreakzio kapazitatea edukitzeak saioarekin aurrera jarraitzeak ahalbidetu digu, egoeraz kontziente izan, lasaitasuna mantendu eta egoera kontrolatuz.

## 5.4 SENTIPENAK

### 5.4.1 KEZKAK, ZALANTZAK ETA BELDURRAK

#### ***Esku-hartzean zehar ze beldur eta kezka adierazi ditut?***

Lehenengo saioan ez zenez inor agertu beldur handiena izan da hurrengo saioan inor ez agertzea, horregatik bigarren larunbatean oso urduri eta kezkatuak geunden ea haurrak etorriko ziren hala ez, hau izan da kezkarik handiena.

Estrategia honekin, espero dugu hurrengo astean haurrak etortzea eta prestatuak lehenengo saioa aurrera eraman ahal izatea. Gainera, gaurko saioa burutu ez dugunez, hurrengo egunetan haurrak etortzen badira zerbitzua egun bat gehiago luzatuko dugu, horrela lau saioak egin ahal izateko (Egunerokoa, burutu gabeko 1.saioa, 2022/02/26).

Behin zerbitzua egiteko prest geundela lehenengo saioan ez zenean inor agertu izugarriko disgustua hartu genuen ez guelako espero eta egindako lan guztia alferrikakoa izango zela pentsatzen guelako. Hala ere, egoerari buelta eman genion eta hobetzeko balio izan



zigun honek. Egia da urduri egon garela egunero ez genekielako zenbat haur etorriko ziren eta haur kopurua alderdi erabakigarri bat izan daiteke jarduera bat edo beste egiterakoan. Saio bakoitzean haur kopurua jakiteak izugarri erraztuko luke lana, materiala prestatzeko eta jarduerak hobeto zehazteko, baina egoera horrelakoa izan da eta honetara moldatu egin behar izan gara.

#### 5.4.2 HAUSNARKETA

##### ***Zein hausnarketa egin ditut esku-hartzean zehar?***

Saio bakoitzean bizi izandako esperientziak eta ikasketek hasunartzera eramane naute eskaini dudan zerbitzuaren inguruan, ea hasieran planteatuko helburuak lortzen nituen eta pertsonalki nola sentitu naizen prozesu osoan zehar.

Hasierako helburuak kontuak hartuz, balorazio oso positiboa atera dut saio honetatik. Eguraldi txarra zegoen eta alternatiba ludiko bat eman diegu haurrei, non ondo pasatu duten jarduera fisikoa egiten, haur desberdinekin eta inguru euskaldun batean. Saioak errazago izango lirakeke haur guztiak hamarretan egongo balira baina ez da egoera errealista bat, familia bakoitzak erritmo bat du eta guk ateak zabalik utziko ditugu hiru orduetan zehar ahal dutenean etortzeko. (Egunerokoa, 1.saioa, 2022/03/05)

Saio bakoitza desberdina izan da eta guztietatik zerbait ikasi dugula sentitu dut. Egunerokoaren bitartez saio bakoitzean egindakoaz hausnartzeko aukera izan dugu, zer gertatu den, zergatik, nola sentitu garen, zein akats izan ditugun eta nola hobetu genezake hurrengo saiorako. Zerbitzu bat zerotik aurrera eramatea esperientzia berria izanik probatzen joan gara eta esperimendatzen zerk funtzionatzen zuen ala ez, beldur eta zalantzaz beterik egon gara eta ahal izan dugun hoberen egiten saiatu gara genituen ezagutza eta esperientziarekin. Uste dugu aukera handia izan dela gure zerbitzua herrian eramane ahal izatea, bertakoak izatea abantaila handia eman digula hau martxan jartzerakoan eta haurren eta gurasoen erantzunak egindakoaz harro sentiarazten gaitu.

#### 5.5 ESPERIENTZIA ETA ANEKDOTAK

##### ***Zer nolako esperientzia eta anekdotak bizi izan ditut?***

Saio guztietan zehar bizipen eta anekdota positiboak bakarrik eskuratu ditut, ez dut egun bat ere ez sentsazio txarrarekin bukatu saioa, baina bai uste dut jarduera konplexuagoak proposatu ahal nituela.

Polita izan da azken saio hau, “altxorren bila” jolasean asko disfrutatu dutelako eta emozioa nabari zen. Gustura sentitu naiz, zeuden haur guztiak aurreko egunetan egondakoak zirelako eta ezagutzen genituelako, gehienak besarkatzen zaituzte eta haien bizipenak kontatzen dizkizute, momentu horiek dira politenak. Saioaren zati hau bukatu dugunean azken jarduerarekin asko hunkitu naiz, hitz edo marrazki politik bakarrik zituzten guretzako eta saioa guztiz bukatu denean eta eskerrak eman digutenean izugarri ondo sentitu naiz eta pena eman dit nahiz eta badakidan herrian zehar ikusiko ditudala. (Egunerokoa, 3.saioa, 2022/03/19)

Zerbitzu honek esperientzia desberdinak eskaini dizkigu eta ikaskuntza berriak ere. Etorkizuneko LH-ko irakasle bezala gure ezagutzak praktikan jarri ditugu, graduan zehar ikasitakoaren bitartez programazio eraginkor bat sortu dugu eta lortu dugun garrantzitsuena esperientzia izan da, dakiguna praktikan jarriz formatzen jarraituz. Jolas kooperatiboan inguruan gehiago ikasi dut noski, baina jarduera nahiko sinpleak proposatu ditudala sentitu dut ez nekielako haurrak nolako erantzuna izango zuten eta adin desberdinekin ez nuen gehiegi arriskatu nahi. Hala ere, jarduera konplexuagoak egin zitezkeela ikusi dut beti beste jolas mota batzuekin tartekatuz nekagarria egiten zitzaielako batzuetan ohiturik zeudelako lehiakortasun jolasetara.

3.taula: analisirako tresna: sistema kategoriala.

DIMENTSIOAK	KATEGORIAK	AZPIKATEGORIAK	KOPURUA
Planifikazioa	Aspektu metodologikoak	Arauak	2
		Espazio eta materiala	4
	Proposamen didaktikoa	Planteatutako aldaketak	6
		Ikasleen erantzunak	5
		Balorazioak	4
	Faktore errestatzaileak	7	
	Faktore oztopatzaileak	4	
Harremanak	Parte-hartzaileen arteko harremanak	4	
	Irakasleekiko jarrera	5	
	Gurasoen erantzuna	4	

Inzidente kritikoak	Gertaerak	3	
	Hartutako erabakiak	4	
Sentipenak	Kezkak eta zalantzak	3	
	Beldurrak	2	
	Hausnarketak	5	
Esperientzia eta anekdotak		4	

1. taulan ikusten den moduan analisirako alderdi esanguratsuenak planifikazioa, harremanak, inzidente kritikoak, sentipenak eta esperientzia eta anekdotak izan dira. Gehien errepikatzen direnak saioetan planteaturiko aldaketak eta izandako faktore errestatzaileak izan dira, baita egindako hausnarketa pertsonalak ere.

## 6. ONDORIOAK

### 6.1 EZTABAIDA

Zerbitzuan zehar lortutako emaitzak argitu ondoren, hauek adituek esandakoarekin alderatuko ditugu, marko teorikoan aipaturiko adituek esandakoarekin, horrela emaitzak borobiltzeko.

Ikaskuntza zerbitzuaren metodologiaren erabilerari dagokionez, aukera eman digu graduan ikasitako teoria praktikara eramaten. Lau urtetan zehar landutakoa eta batez ere azken urte honetan gorputz hezkuntzako minorrean ikasitakoak parte-hartzaileetara egokituriko zerbitzu eraginkor bat programatzeko aukera eman digu. Horrela, komunitate batekin zuzenean konektatzeko aukera izanez, Kanpezuko eta inguruko herriko haur eta gurasoekin zehazki (Aramburuzabala et al., 2019). Honetaz gain, gure ongizate-eremutik ateratzera behartu gaitu metodologia honek, zuzenean herritarrekin eta administrazio publikoekin kontaktuan jarriz adibidez, zerbitzuaren ardura geureganatuz eta autonomiaz lan eginez.

Roser Batlle (2015) adituak dioenez, ikaskuntza zerbitzuan oinarrituriko proiektu batek hiru fase ditu, eta guk hirurak bete ditugu. Hasteko, proiektuaren prestakuntza egin dugu indentifikatu dugun behar batetik abiatu zerbitzu bat diseinatzen honek eskatzen dituen pausu guztiak jarraituz. Zeretik sorturiko zerbitzua izanik denbora asko eman dugu lehenengo fase honetan, hurrengo fasea burutu ahal izateko. Ondoren, proiektua aurrera eramateko prestatu dugu, gauzatu egin dugu eta itxiera eman diogu, hemen izan dugu

proiektuaren mamia eta gehien disfrutatu dugun fasea. Azkenik, proiektuaren balorazioa egin da, lorturiko emaitzak aztertuz hausnarketa eta autokritika martxan jarritz.

Ikaskuntza zerbitzuak onura ezberdinak ditu eta honetaz jabetu egin gara zerbitzuarekin aurrera egin ahala. Esperientzia eta ikaskuntza berriak eman dizkigu esparru akademikoan, etorkizunerako erabilgarriak egingo zaizkigunak, hezkuntzarekin eta batez ere gorputz hezkuntzarekin zerikusia izan duelako gure zerbitzuak (Capella et al., 2014). Gainera, inplikazio handia eskatzen duen proiektua izanik interes eta motibazioa ekarri dizkigu, honekin zuzenean esperientzia emozional oso positiboa eta gure buruarekiko konfiantza, egindako lanaren fruituak zuzenean behatu ditugulako, prozesuaren arduradunak izan garelako hasieratik bukaeraraino (Aramburuzabala et al., 2019).

Ikaskuntza kooperatiboari dagokionez, talde txikietan, gehienetan heterogeneoetan, ikasleek elkarrekin lan egiten dute, eta gure kasuan horrela izan da, talde txikiak izan ditugu eta adin eta izaera guztiz desberdineko parte-hartzaileak. Haur nagusienek txikiak lagundu dituzte saio guztietan, haien kabuz era naturalean, gainera talde orekatuak egiten saiatu dira adinak nahastuz (Fraile et al., 2014).

Programaturiko jolas kooperatiboetan helburu komunera iristeko haurren arteko laguntza behar izan dute, guztien partaidetza beharrezkoa delako helburu komun bat lortzeko. Horrela, talde-sentimendua indartu da, guztien kolaborazioa eta komunikazioa eskatzen duen jardueren bitartez haien artean hobeto ezagutu dira (Mondragon unibertsitatea, 2009). Hala ere, liskar txikiak eta gaizki ulertuak egon dira, parte hartzaileen egozentrismoa, indibidualtasuna eta lehiatzeko joera presente baitzeuden. Askotan frustragarriak izatera heldu daitezkeelako jolasak, ez da erraza ohiturik ez dauden jolas mota batean aritzea eta gure laguntza behar izan dute zenbait momentutan baita haientzat ezagunak diren jolasak ere, ahalik eta jolas eta esperientzia erakargarrienak planteatu ditugun arren haurren beharretara moldatu gara (Antón, 2011).

Laburbilduz, aditu desberdinek ikaskuntza zerbitzuaren zein jolas kooperatiboan inguruan aipatutakoarekin bat egin du gure esperientziak orokorrean, kontuan hartuz lau saio bakarrik eraman ditugula aurrera eta tarte txikia dela ondorio zehatzak lortzeko. Hala ere, argi dago ikaskuntza zerbitzua metodologia praktikoa dela eta onura handiak dituela inplikaturiko guztientzako, pertsonalki zein profesionalki. Gainera, gure zerbitzuan aurrera eramandako jolas kooperatiboek haurren arteko talde-sentimendua eta guztien integrazioa ahalbidetu dute, jarduera fisikoa sustatuz.

## 6.2 BALORAZIOA

Gradu Amaierako lan honen bitartez, helburu desberdinak planteatu dizkiogu lanari, eskaini dugun zerbitzuari eta geure buruari ere. Orokorrean, prozesuaren hasieran zehazturiko helburuen gehiengoa lortu dugula esango nuke, ahal izan dugun neurrian eta eduki dugun denbora laburra kontuan hartuz.

Hasteko, ikaskuntza zerbitzuaren metodologiaren helburuarekin bat eginez proiektu bat era autonomoan hasieratik amaieraraino aurrera eramatea lortu dugu. Honetarako, metodologia honen inguruan asko irakurri dugu, aditu desberdinen teorien bitartez honetan sakondu dugu eta honi esker gure ideiak praktikara eraman ahal izan ditugu. Horrela metodologia berri batean murgildu gara eta lehenengo pertsonan esperimendu ahal izan ditugu dituen onura guztiak. Ez da metodologia berritzaile bat besterik ez, ikaskuntza esanguratsua sustatzen du eduki teorikoak praktikara eramaten inguru erreal batean, helburu erreal batekin ikaslea lehenengo planoan jarriz. Kontzientzia soziala eta gure inguruaren zainketa zuzenean abordatzen ditu, zure lan eta esfortzuari zentzua eta zergatia emanaz.

Metodologia honekin batera, gure esperientzia pertsonaletatik lorturiko ezagutzak eta graduan zehar ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan dugu eta aldi berean ikaskuntza desberdinak eskuratu ditugu. Garrantzitsua izan da ikasitakoa praktikan jartzeko esparrua izatea, horrela ikusteko zenbait praktika edo jarduera benetan erabilgarriak diren eta egoeraren arabera zein aldaketa diren onuragarrienak. Benetan esperimendatzeko momentua izan da, ditugun oinarri teoriko guztiak kontuan hartu eta martxan jarri, emaitza positiboak disfrutatzen eta ezustekoei aurre eginez.

Eskaini dugun zerbitzuari dagokionez, garrantzitsuena aurrera eraman dugula da, paperean idatzitakoa praktikara eramateko aukera izan dugula. Honen bitartez, Kanpezuko herrian zerbitzu berri bat sortu dugu lau astez, behar bateri erantzun diona. Justizia soziala eta berdintasuna lortzeko bidean, gure ekarpena egin diogu Arabako herri txiki honi. Bertako herritarrak izanik argi izan dugu herria indartuko duen zerbitzua eskaintzea herriarentzat eta guretzat positiboa izango zela, gu bezala herriaz disfrutatzen duten haurrentzako aukera berri bat eskainiz. Hirietan mila aukera daude asteburu goizetan egiteko, baliabide eta entitate asko daudelako, herrietan aukerak murriztagoak dira baina alternatibak badaude.

Gure kasuan, jarduera fisikoa sustatzen duen alternatiba ludiko bat eskaini dugu lau asteburuetan Kanpezuko eta inguruko herriko haurrentzako. Horrela, sedentarisismoa eta bakardadea ekidinez eta haur desberdinen artean konexioa eta laguntasuna sustatuz.

Lehen hezkuntzako gradua ikasten egoteak 6-12 urte bitarteko haurrentzako zuzenduriko zerbitzua prestatzera eraman gaitu, formaturik eta gai ikusi garelako eremu honetan. Gainera, jolas kooperatiboen bitartez talde lana eta talde sentimendua indartzea lortu dugu, beste jolas tradizionalekin txandakatuz haurren neurria eta beharretara egokituz. Guzti hau euskararen erabileraren bitartez eraman dugu aurrera, geroz eta euskaldunagoa den herrian eta ikastolak zein udaletxeak bultzatzen dituen balore eta ekimenekin bat eginez.

Esan bezala, gure zerbitzua denboraldi batez behar batera erantzuna eman dio baina ez da izan erantzun definitibo bat. Denboraldi honetan lortu dugu hasieran planteaturiko helburuak betetzea pentsatu baino neurri handiagoan. Pertsonalki zein profesionalki asko elikatu gaitu lan honek bere osotasunean, etorkizunerako esperientzia eta bizipenak gehitu dizkigu eta gizarte hobeto eta justuago baterako bidean gure ekarpen txikia egin dugu.

### 6.3 MUGAK ETA HOBETUNTZAK

Gradu Amaierako Lan honi amaiera emateko, izan dituen mugak eta egin zitezkeen hobekuntzak aipatuko ditut. Orokorrean, oso esperientzia postiboa izan da eta ikaskuntza prozesu handia niretzako, ondo inbertitutako denbora eta esfortzua. Hala ere, bizitzan beste gauza askotan bezala eginez ikasten da, eta behin zerbait prestatu eta egin ostean konturatzen zara egon diren akatsez eta zer egin ahal zen hauek saihesteko edo hurrengo baterako hobetzeko.

Gure kasuan, mugarik handiena jendea erakartzea izan da zerotik sorturiko zerbitzu batera. Jadanik herrian prestatzen den zerbait izango balitz, haur eta gurasoek honen berri izango lukete eta guk gure ekarpena egingo genuke, baina guk sortu behar izan dugu hasieratik dinamika eta konfiantza eta segurtasuna transmititu jendeak parte hartzeko. Hasieran kostata, baina lortu dugu talde txiki bati gure zerbitzua eskaintzea, herrikoak izatea eta familia gehienak ezagutzea lagundu gaitu ere prozesu honetan. Honetaz gain, saio bakoitzean etorriko zen haur kopurua ez jakiteak ere buruhauste handia izan da, ziurgabetasun handia zegoelako haur kopuruaren arabera saioa momentuan moldatzeko.

Atzera begira, zerbait hobetu beharko bagenu, berriro hasiko bagina, denbora eta esfortzu gehiago eskainiko genioke zerbitzua iragartzeari, estrategia desberdinak pentsatu jende gehiagorengana heldu ahal izateko. Aldi berean, saio bakoitzean parte-hartzaileen kopurua aurretik jakiteko estrategia bultzatu, idei orokor bat izateko eta programazioa zehatzagoa izateko. Bukatzeko, programazioa oztupo bat izan ez den arren, daukagun ingurunea kontuan hartuz, naturarekin konektatuko nuke gehiago, herriak eskaintzen dizkigun baliabide

naturalak aprobetxatzeko asmoz, honetaz ikasteko eta disfrutatzeko. Jolas kooperatiboak oso baliagarriak izan diren arren, hauek beste motatako jarduerekin nahastuko nituzke medi txangoekin adibidez. Hala ere, pozik eta harro nago egin dugun lanarekin eta lorturiko emaitzekin ere.

## 7. ERREFERENTZIAK

- Antón, E. (2011). Los juegos cooperativos en educación física. *Pedagogía Magna*, 11, 38-41.
- Aramburuzabala, P., Chiva-Bartoll, O., Ruiz-Montero, P. J., & Santos-Pastor, M. L. (2019). Perspectivas y retos de la intervención e investigación en aprendizaje-servicio universitario en actividades físico-deportivas para la inclusión social. *Publicaciones*, 49(4), 19–27. <https://doi.org/10.30827/publicaciones.v49i4.11726>.
- Basanta-Camiño, S., Lago-Ballesteros, J., & Navarro-Patón, R. (2019). Conductas prosociales de escolares de educación primaria: influencia de los juegos cooperativos. *Sport TK*, 8(2), 33-37. <https://doi.org/10.6018/sportk.401081>.
- Batlle, R. (2015). Guía práctica de aprendizaje-servicio. *Proyecto Social*, 4-34.
- Capella, C., Gil, J., & Martí, M. (2014). La metodología del aprendizaje-servicio en la educación física. *Apunts*, 116, 33-43 [https://doi.org/10.5672/apunts.2014-0983.es.\(2014/2\).116.03](https://doi.org/10.5672/apunts.2014-0983.es.(2014/2).116.03).
- Capella, C., Chiva, O., Ruiz, P., & Salvador, C. (2020). Alcance del aprendizaje-servicio en la formación inicial docente de educación física: una aproximación metodológica mixta. *Retos*, 37, 465-472. <https://doi.org/10.47197/retos.v37i37.70713>
- Carralero, K. C. (2006). Los juegos cooperativos: una propuesta para la clase de Educación Física en el primer ciclo de la Enseñanza Primaria. *EF.deportes.com.Lecturas*, 99. <https://efdeportes.com/efd99/coop.htm>
- Chiva, O. (2011). Aprendizaje servicio: una apuesta clave para la consecución de los proyectos de las ciudades educadoras. *Quaderns digitals*, 69. [http://www.quadernsdigitals.net/index.php?accionMenu=hemeroteca.VisualizaArticuloU.visualiza&articulo\\_id=11059](http://www.quadernsdigitals.net/index.php?accionMenu=hemeroteca.VisualizaArticuloU.visualiza&articulo_id=11059)

Chiva, O., Gil, J., & Martí, M. (2014). El aprendizaje de contenidos de educación física en la universidad mediante aprendizaje servicio Un estudio cuantitativo y cualitativo. *Tándem*, 44, 15-25.

Fraile, A., López, V. M., & Velázquez, C. (2014). Aprendizaje cooperativo en Educación Física. *Movimiento*, 20(1), 239-259.

Deru, P. (2009). Jolas kooperatiboa. *Jakingarriak*, 67, 38-41.

Navarro-Patón, R., Peixoto-Pino, L., & Rodríguez-Fernández, J.E. (2019). Preferencias de interacción social en educación física de escolares de educación primaria y secundaria de Lugo. *Trances*, 11(1), 601-620.

Omeñaca, R. eta Ruiz, J.V. (2005). *Juegos cooperativos y educación física*. Paidotribo.

Rubio, L. (2007). Aprendizaje y servicio solidario. Zerbikas fundazioa, 0. Zerbikas Fundazioa.

Velazquez, C., Fraile, a., & López, V.M. (2014). Aprendizaje cooperativo en educación física. *Movimento*, 20(1), 239-259.

Velázquez Callado, C. (2004). Las actividades físicas cooperativas. *Una propuesta para la formación en valores a través de la educación física en las escuelas de educación básica*. Secretaría de la Educación Pública de Mexico.

236/2015eko Dekretua (2016). *Dekretuaren II.eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea*. Eusko Jaurlaritza.

## 8. ERANSKINAK

1.eranskina: programazioa.

SAIO SEKUENTZIA
Helburuak: -Taldekideekin komunikazio eraginkor bat erabiltzen du, norberaren eta besteen nahiak asebetetzeko. -Helburu komun bat lortzeko talde lanean aritzen da, lagunduz eta partaide guztiak kontuan hartuz.



<b>1. SAIOA</b> Otsailak 26 10:00-13:00	<i>Denbora:</i> 1h 30 min	<i>Tokia:</i> frontoia edo parkea.	<i>Materiala:</i> tamaina ezberdinetako uztaiak, konoak, soka, zapiak, pilotak.
	<i>Helburu nagusia:</i> Parte-hartzaileak elkar ezagutzea eta jolas koperatiboekin lehen kontaktuta izatea.		
	<i>Saioaren garapena:</i> 1.Jarduera→Uztaia pasatu 2.Jarduera→ Begirik gabeko tren 3.Jarduera→Sugea 4.Jarduera→ Zenbatu		
<b>2. SAIOA</b> Martxoak 5 10:00-13:00	<i>Denbora:</i> 1h 30min	<i>Tokia:</i> frontoia edo parkea.	<i>Materiala:</i> pilotak, uztaiak, konoak, kartulinak.
	<i>Helburu nagusia:</i> Prte-hartzaile bakoitzak taldean duen garrantzia eta beharra ulertzea, elkarrekin lan eginez helburu desberdinak lortzeko.		
	<i>Saioaren garapena:</i> 1.Jarduera→ Hartu eta pasa 2.Jarduera→ Bikoteak egin 3.Jarduera→ Orkesta		
<b>3. SAIOA</b> Martxoak 12 10:00-13:00	<i>Denbora:</i> 1h 20min	<i>Tokia:</i> frontoia edo parkea.	<i>Materiala:</i> puxikak, musika erreproduktorea, manta.
	<i>Helburu nagusia:</i> Talde lanean aritzea eta taldearentzako onuragarriak diren erabakiak hartzea.		
	<i>Saioaren garapena:</i> 1.Jarduera→ Puxika mantendu 2.Jarduera→ Erreleboak 3.Jarduera→ Gogoan izan 4.Jarduera→ Nor falta da?		

<b>4. SAIOA</b> Martxoak 19 10:00-13:00	<i>Denbora:</i> 1h 30min	<i>Tokia:</i> frontoia edo parkea.	<i>Materiala:</i> puxikak,uztaiak, zapiak, klarionak, sokak, pilotak, konoak, papera eta margoak.
	<i>Helburu nagusia:</i> Sormen eta estrategia bidez egoera ezberdinak ebaztea.		
	<i>Saioaren garapena:</i> 1.Jarduera→ Altxorraren bila 3.Jarduera→ Erlaxatu 3.Jarduera→ Agurra		

<b>1. SAIOA</b>	1. Jarduera “UZTAIA PASATU”	<b>Azalpena:</b> eskuak loturik borobil bat egingo dute jokalariek, eta uztai bat pasatu beharko dute uztaia hasierako puntura itzuli arte, eskuak askatu gabe.
		<b>Arauk:</b> ezin da borobila apurtu.
		<b>Aldaerak:</b> hasieran uztai handi bat erabili, eta geroz eta txikiagoa den bat. Uztai bat baino gehiago erabili daiteke.
	2. Jarduera “BEGIRIK GABEKO TRENA”	<b>Azalpena:</b> jokalariek tren bat egingo dute sorbaldeetatik helduta eta guztiek begiak itxita edukiko dituzte azkenengoak izan ezik. Azkenengoak gidatuko ditu gainerakoak hitzik egin gabe, aurretik zehazturiko estrategia erabiliz. Zelaian zehar dagoen pilota edo objektua hartzea izango da helburua, trenaren hasieran doan jokalaria hartuko du. Txanda bakoitzean jokalarien tokiak aldatzen dira, toki desberdinak probatzeko.
		<b>Arauk:</b> begiak zabalik dituen makinistak ezin du hitzik egin eta trena ezin da askatu.
		<b>Aldaerak:</b> hasieran begi-bistan dagoen pilota edo objektu bat erabili, gero ezkutatu aurkitzeko zailagoa

		izan dadin.
	3. Jarduera "SUGEA"	<b>Azalpena:</b> ilaran eskutik harturik edo besoak elkartuz, taldekide bakoitzak kono bat du buruan, eta markaturiko helmugara iritsi behar dira, buelta eman eta hasierako puntura bueltatu. Ezin zaio inori buruan duen konoa erori, norbaiti konoa erortzen bazaio hasierara bueltatu behar da talde guztia. Hasieran ibili beharko den distantzia txikia izango da, eta geroz eta handiagoa.
		<b>Arauk:</b> ezin da ilara apurtu, eta norbaiti konoa erortzen bazaio, talde guztia hasierako puntura bueltatu behar da
		<b>Aldaerak:</b> -Konoak erabili orde, hanka-motzean soka bat eraman beharko dute denek batera. -Pilota bat puntu batetik bestera eraman hankak erabiliz lurrean eserita. Kadeneta bat eginez, batak besteari pilota pasatuz.
	4. Jarduera "ZENBATU"	<b>Azalpena:</b> borobilean jarri eta dauden ikasleak zenbatuko dira. Hamabost ikasle badaude adibidez, hamabost arte zenbatu beharko dute bakoitzak zenbaki bat esanez inolako ordenik gabe. Zenbakiak esaterakoan bi ikasle edo gehiagok batera kointziditzen badute berriro hasieratik hasi behar dira. Helburua da hamabost zenbakiak esatea, ikasle guztiek zenbaki bat esatea eta ez kointziditzea.
		<b>Arauk:</b> ezin dira hitz edo keinuak egin, ikasle bakoitzak zenbaki bat esan behar du, guztiek parte hartu behar dute eta bi ikaslek edo gehiagok zenbaki berdina esaten badute aldi berean berriro hasi behar da.
<b>Aldaerak:</b> ikusten bada oso zaila et frustragarria		

		bihurtzen ari dela estrategia bat pentsatzen utziko zaie, keinu bat adibidez zenbakia esan aurretik.
--	--	------------------------------------------------------------------------------------------------------

<b>2. SAIOA</b>	1. Jarduera "HARTU ETA PASA"	<b>Azalpena:</b> jokalari guztiak borobilean jarriko dira bakoitza objektu batekin, denak aldi berean objektua askatu eta ondokoa artu beharko dute erori baino lehen. Txanda bakoitzean jokalarietako batek emango du objektuak askatzeko seinalea. Helburua da objekturik erori gabe jokalari guztiak tokiz aldatzea.
		<b>Arauk:</b> tokiz aldatzeko seinalea eman arte ezin da objektua askatu ezta tokiz mugitu.
		<b>Aldaerak:</b> lehenengo objektu batzuekin egin daiteke, eta gero aldatu, uztaiak edo pilotak adibidez airera jaurtiz edo lurrean bote emanez.
	2. Jarduera "BIKOTEAK EGIN"	<b>Azalpena:</b> jokalariai zelaiaren alde batean jarriko dira ilaran, eta zelaiaren beste aldean txinoak egongo dira sakabanaturik. Konoen azpian txartelak daude, koloreak edo formak, kolore edo forma bakoitzetik bi daude, hau da bikoteak. Ikasleak banaka, eta txandak errespetatuz, konoak dauden lekuraino joan behar dira korrika eta bi kono altxatu, berdinak badira azpian dauden kartelak altxaturik geldituko dira, bestela hasieran zeuden moduan utzi behar ditu. Banaka, joan-etorriak egingo dituzte bikote guztiak lortu arte, kono guztiei buelta eman arte.
	<b>Arauk:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- taldekide bakarra irteten da txanda bakoitzean, eta bi kono bakarrik altxatu ditzake.</li> <li>- irten den jokalaria, hasierako marrara iritsi arte ezin da hurrengo atera.</li> </ul>	

		<ul style="list-style-type: none"> <li>- konoen azpian dauden paperak berdinak ez badira, hasiera zeuden bezala utzi behar dira.</li> </ul>
		<p><b>Aldaerak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Banaka joan beharrean konoak altxatzera, bikoteka eskutik emanda joatea. Horrela, bidaia gehiago egin beharko dira, eta komunikazioa handitu.</li> <li>- Korrika joan beharrean konoak altxatzera, hanka-motzean joan eta korrika bueltatu. Horrela, oreka lantzen da.</li> <li>- Korrika joan konoak altxatzera, eta atzeraka bueltatu.</li> </ul>
	<p>3. Jarduera "ORKESTA"</p> <p><b>Azalpena:</b> ikasle guztiak borobilean jarriko dira, eta hauetako bat kanpora irtengo da edo borobiletik urrunduko da ezer ez entzuteko. Gainerako ikasleek zuzendari bat aukeratuko dute, eta berak egiten duena egin beharko dute, txalok, keinuak, zaratak etab. Kanpora irten den ikaslea bueltatuko da, eta asmatu beharko du zein den zuzendaria, nor imitatzen duten gainerako ikasleek. Asmatzen duenean, zuzendaria izan dena irtengo da kanpora eta berriro aukeratuko da beste zuzendari bat.</p> <p><b>Arauk:</b> zuzendariak egiten duen guztia imitatu behar da.</p>	

3. SAIOA	1. Jarduera "PUXIKA MANTENDU"	<p><b>Azalpena:</b> puxika bat puztuko da, eta helburua da putz eginez zelaiaren beste aldean lurtean dagoen uztai batean sartzea. Lehenengo binaka, gero talde txikietan eta azkenik talde osoak. Puxika erortzen bada, hasierako puntura bueltatu behar da berriro hasteko.</p>
----------	-------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

		<p><b>Arauk:</b> puxika ezin da ukitu, putz eginez bakarrik mugitu daiteke, eta txanda bakoitzean batek egiten du putz, ezin du pertsona berdinak bi aldiz putz egin.</p>
		<p><b>Aldaerak:</b> lehenengo puxikarekin egin daiteke eta gero pilota batekin, putz egin beharrean eskuekin tokeak emanaz.</p>
	<p>2. Jarduera "ERRELEBOAK"</p>	<p><b>Azalpena:</b> Bikoteka puxika bat eraman behar dute puntu batetik bestera modu desberdinetan eskuak erabili gabe, buruarekin, bizkarrarekin edo ipurdiarekin. Joan etorria egin behar da puxika erori gabe.</p>
		<p><b>Arauk:</b> ezin da puxika eskuekin ukitu eta lurrera erortzen bada hasierako puntura itzuli behar dira eta berriro hasi.</p>
		<p><b>Aldaerak:</b> lehenengo binaka puxika eraman daiteke modu desberdinetan, gero hironaka ere.</p>
	<p>3. Jarduera "GOGOAN IZAN"</p>	<p><b>Azalpena:</b> ikasleetako bat izango da gogoan izan behar duena beste guztien postura. Ikasleak elkarrekin jarriko dira postua bat mantenduz eta batek minutu bat edukiko du hau memorizatzeko, gero kanpora irtengo da. Ikasleetako batek bere postura aldatuko du eta kanpora irtendako ikaslea sartu eta asmatu beharko du nor izan den postura aldatu duena.</p>
<p><b>Arauk:</b> denbora eman behar zaio ikasleari memorizatzeko posturak, eta erabakitako pertsona kopuruak bakarrik aldatuko dute postura.</p>		
<p><b>Aldaerak:</b> talde txikietan has daiteke, eta geroz eta handiagoak. Pertsona bakarra postura aldatzen hasi daiteke eta gero bat baino gehiagok. Ikasle bakarra izan daiteke memorizatu behar dituenak posturak edo</p>		

		bat baino gehiago.
	4. Jarduera "NOR FALTA DA?"	<p><b>Azalpena:</b> musika erreproduktore bat lurrean jarriko da, eta ikasleak honen inguruan lasai ibiltzen egongo dira. Orduan, irakasleak edo ikasleek zein gorputz atal luzatu behar duten esango du, eta luzatzen joango dira mugimenduan edo geldirik. Musika eteten denean, denak buruz-behera lurrean etzango dira begiak itxita, eta arnasa kontrolatuz. Momentu honetan, denak lurrean lasai etzanda daudenean musika gabe, irakasleak edo ikasleetako batek beste ikasle bat manta batekin guztiz estaliko du. Musika berriro martxan jarriko da, eta ikasleak begiak ireki eta altxatuko dira, orduan asmatu beharko dute zein ikasle dagoen mantaren azpian, eta asmatzen dutenean berriro hasiko dira beste gorputz atal bat luzatzen.</p>
		<p><b>Arauk:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- ezin dira gainerako ikaskideak molestatu</li> <li>- isiltasuna mantentzea da gomendagarria</li> <li>- bakoitzak bere arnasketa kontrolatu behar du.</li> </ul>
		<p><b>Aldaerak:</b> musika mota desberdinak jarri daitezke erritmo desberdinekin ibiltzeko. Gainera, manta bat baino gehiago egon daiteke. Irakasleak esan dezake zein gorputz atal luzatu edo ikasleek banan banan, eta irakasleak jarri dezake manta edo txanda bakoitzean ikasle desberdin batek.</p>

4. SAIOA	1. Jarduera "ALTXORRAREN BILA"	<p><b>Azalpena:</b> Taldeak mapa bat izango du eta hasierako erronka bat. Erronka gainditzen dutenean irakasleak pista emango die, pista eta maparekin hurrengo pista dagoen tokiraino joan beharko dira eta bertan berriro ere erronka bat burutu pista berri bat lortzeko.</p>
----------	-----------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

		<p>Azkeneko erronka gainditzen badute altxorra aurkitzeko pista lortuko dute, eta sari bat (goxoki bat bakoitzarentzat).</p> <p>Hiru erronka dira guztira, haur kopuruaren arabera talde bakarra edo bi talde egin daitezke. Talde bakarra bada bi irakasleak talde osoarekin joango dira eta bestela irakasle bakoitza talde batekin. Lehenengo erronkan, klarionarekin lurrean borobil bat marraztuko dute eta erdian kono bat egongo da, helburua konoa borobiletik ateratzea izango da pilota batekin kolpeak emanaz. Pilota bakarra egongo da taldeko eta banan banan txandaka jaurti behar dute pilota.</p> <p>Bigarren erronkan, uztai bat edukiko du talde bakoitzak eta bi soka, taldekideetako bakoitza uztaitik pasatu behar da uztaia ukitu gabe, sokekin bakarrik ukitu daiteke uztaia.</p> <p>Hirugarren erronkan, pilota bat edukiko du talde bakoitzak eta partaide bakoitzak toke bat ematea lortu behar dute lehenengo bi eskuekin, gero esku batekin, gero oinekin eta azkenik buruarekin.</p>
	2. Jarduera	<p><b>Araua:</b> Erronka kooperatiboak dira, beraz guztien parte-hartzea beharrezkoa da erronka guztiak gainditzeko.</p> <p>-Lehenengo erronkan, pilotarekin bakarrik ukitu daiteke konoa eta jaurtiketak banan banan eta txandaka egiten dira guztiek jaurtitzeko.</p> <p>-Bigarren erronkan, partaide guztiak pasatu behar dira uztaitik eta ezin du inork uztaia ukitu bere gorputzarekin.</p> <p>-Hirugarren erronkan, partaide guztiek egin behar dute toke bat.</p> <p><b>Azalpena:</b> Bi talde egingo dira, batzuk "lurra" eta</p>










	“ERLAXATU”	<p>beste batzuk “airea” izango dira. Zapi batekin guztiek begiak estaliko dituzte, eta irakasleak lurra esaten badu, hauek zapia kendu airea den jokalaria bat aukeratu eta masajea emango dio sorbalda, beso, buru edo hanketan. Masaje jasotzen duenak begiak estalita edukiko ditu. Irakasleak esandakoan berriro begiak estali eta berriro lurra edo airea esango du.</p> <p>Begiak estalita dituenak eta masaje jasotzen ari denak eskuineko eskua altxatzen badu, horrek esan nahi du ez duela toki horretan masajerik nahi eta segituan errespetatu behar du eta tokiz aldatu. Ezkerreko besoa altxatzen badu gustatzen zaiola esan nahi du.</p>
		<p><b>Arauk:</b> Begiak estalita dituen jokalariaren nahiak errespetatu behar dira, horretarako altxatzen duen eskua arretaz begiratu behar da. Ezin da hitzik egin jarduera osoan zehar, bukatzerakoan deskubrituko da nor egin dion nori masajea.</p>
	3. Jarduera “AGURRA”	<p><b>Azalpena:</b> Guztiak elkartu gara, eta bakoitzak paper batean idatzi edo marraztuko du egun hauetan nola sentitu den edo zer ikasi duen, nahi duena. Bakoitzak idatzitako papera puxika baten barruan sartuko du, paper anonimoa izango da, eta puxikak airera botako ditugu hauekin jolasteko. Gero, bakoitzak puxika bat hartuko du, berea edo beste edozeinena, puxika apurtu eta barruko paperean jarritakoa erakutsi edo irakurriko du denentzako.</p>

2.eranskina: zerbitzua iragartzeko kartela.



3.eranskina: ebaluazio fitxa.

EBALUAZIO FITXA			
Parte hartu dut?			
Taldean lan egin dut?			
Ikaskideak errespetatu ditut?			

<b>Gauza interesgarriak ikasi ditut?</b>			
<b>Gustora egon naiz?</b>			
<b>Egindako jolasak gustatu zaizkit?</b>			
<b>Zein da gehien gustatu zaidan jarduera?</b>			
<b>Zein da gutxien gustatu zaidan jarduera?</b>			
<b>Zerbait aldatuko zenuke?</b>			

4.eranskina: egunerokoa.

<b>SAIOA</b> → 1		
<b>EGUNA:</b> Otsailak 26	<b>ORDUTEGIA:</b> 10:00-13:00	<b>HAURRAK:</b> 0
<b>TOKIA:</b> frontoia.	<b>MATERIALA:</b> tamaina ezberdinetako uztaiak, konoak, soka, zapiak, pilotak.	
<b>SAIOAREN GARAPENA</b>		
<p>Kartela zabaldu dugunetik haur baten ama bakarrik jarri da kontaktuan gurekin, Kanpezuko haur baten ama eta Elenak Zuñigatik ekarriko dituen beste bi haurren gurasoak. Hiru haurrekin ezinezkoa ikusi dugu saioa aurrera eramatea, horregatik bertan behera utzi behar izan dugu. Hala ere, hamarretan frontoira hurbildu gara badaezpada ea norbait abisatu gabe agertzen bazen, baina ez da horrela izan. Saioa ezin izan dugu aurrera eraman baina bertan geundela aprobeztatuz goiz osoa eman dugu hurrengo saiorako haurrak erakartzeko estrategia bat pentsatzen.</p>		

Erabaki dugu kartela gure sare sozialetan eskegiko dugula astean zehar, whatsapp bidez gehiago zabalduko dugula jendeari birgogoratzeko, kartel gehiago jarriko ditugu eta ezagutzen ditugun familiei pertsonalki azalduko diegu gure zerbitzua. Honetaz gain, ikastolako zuzendariarekin kontaktuan jarri gara, horrela, ikastolara kartela gonbidapen indibidual bezala eramango dugu, apuntatzeko zenbakirik gabe ordua eta tokia jarritz besterik ez. Ikastolako haur guztiei banatuko zaie, 6-12 urte bitarteko ikasleei etxera eramateko ohar baten moduan. Hau guztiarekin espero dugu hurrengo astean haurrak etortzea eta prestatutako lehenengo saioa aurrera eraman ahal izatea. Gainera, gaurko saioa burutu ez dugunez, hurrengo egunetan haurrak etortzen badira zerbitzua egun bat gehiago luzatuko dugu, horrela lau saioak egin ahal izateko.

#### **INFORMAZIOA NOLA EMAN ETA NOLA JASO**

Ezer ez.

#### **FAKTORE ERRESTATZAILEAK ETA OZTOPATZAILEAK**

Udaletxeak guretzako frontoia erreserbatzea eta bertan dagoen materiala uztea faktore errestatzaile bat da gure zerbitzua aurrera eraman ahal izateko hurrengo egunetan. Bestalde, gaur inauteriak ospatzen dira eta hau faktore oztopatzaile bat izan daiteke, Kanpezuko eskolan ez dagoelako zubirik baina beste batzuetan badute eta arratsaldean ludotekan inauterietako jaia dute. Goizean ez dago ezer ez programaturik herrian, arratsaldea bakarrik, baina baliteke egun berezia izateak gure zerbitzua bigarren plano batean utzi izana. Zerbitzuarekin hasteko datak zehaztu genituenean ez ginen konturatu inauteriak zirela, hori gure akatsa izan da eta haurrak ez etortzearen arrazoia izan daiteke.

#### **EGINDAKO ALDAKETAK**

Saioa hurrekin ezin izan dugu aurrera eraman, baina hiru ordu hauek aprobetxatu ditugu gure zerbitzuaren iragartze estrategia hobetzeko eta hurrengo saioetan egingo duguna ondo finkatzeko.

#### **GERTAERA KRITIKOAK**

Ezer ez.

#### **BIZI IZANDAKOA**

Frustragarria eta tristea da ilusioz eta maitasunez prestatutako zerbait funtzionatzen ez duenean, uste genuen ondo aterako zela hasieratik eta desilusio handia izan den arren ez gara etsiko eta hurrengo asterako hobeto iragartzen saiatuko gara gure zerbitzua.

Badakigu berria den zerbait aurrera eramatea zaila dela, baina ahal dugun guztia egingo dugu gutxienez martxan jartzeko. Egun berezia izateak gure zerbitzua kaltetu izanaren esperantza dugu, hori izatea arrazoi nagusia eta hurrengo saiorako haurrak etortzea. Gainera, goiz hau aprobetxatu egin dugu ez da denbora galtzea izan, hobetzeko balio izan digu saio honek hurrengo egunean hobeto egiteko.

### BALORAZIOA

Ezer ez.

### EBIDENTZIAK



Hau da ikastolan banatuko dugun gonbidapena, apuntatzeko zenbakirik gabe eta non den zehaturik.

### SAIOA → 1

**EGUNA:** Martxoak 5

**ORDUTEGIA:** 10:00-13:00

**IKASLEAK:** 21

**TOKIA:** frontoia

**MATERIALA:** tamaina ezberdinetako uztaiak, konoak, puxikak eta zapiak.

### SAIOAREN GARAPENA

Gaurkoan ere aurrekoan konfirmaturik genituen hiru haurrak besterik ez ditugu konfirmaturik, baina ikastolan emandako gonbidapenekin esperantza genuen haur

gehiago etortzeko eta horrela izan da. Hamarretan zazpi haur genituen frontoian eta lehenengo zatian nor garen eta gaurkoan egingo duguna azaldu dugu eta izenak erreparatu ditugu. Gero, paper batean bakoitzak bere izena, adina eta nondik datorren apuntatu du eta ondoren jolasekin hasi gara. Hasi garenerako 12 haur ziren, pixkanaka pixkanaka etortzen hasi dira batzuk bakarrik eta beste batzuk gurasoekin.

Uztaia pasatu, begirik gabeko trena eta sugea jarduerak egin ditugu. Lehenengo uztai handi batekin egin dute eta gero txikiago bat, erraz eta azkar lortu dute bi taldeetan banaturik eta gero talde osoan berdina egin dugu baina bi uztairekin batera, erraz lortu dute ere. Ondoren, begirik gabeko trena egin dugu, bi tren txiki egin dira eta nik ezkututzen nizekion talde bakoitzari aurkitu beharreko objektu bat, estutxe bat eta txano bat. Asko luzatu da jarduera hau, bai azalpenagatik eta denak izan nahi zutelako atzean zihoan makinista. Azkenik, sugea jarduera egin dugu lehenengo konoak eramanez eta gero puxikekin. Gero, puxikekin jolasten ibili dira haien artean denbora luzez frontoi osoan zehar. Saioa bukatu denean, gurasoei esan diegu zerbitzuak saio bat gehiago edukiko duela, Martxoak 26 ere egongo garela nahiz eta kartelean ez duen jartzen.

### **FAKTORE ERRESTATZAILEAK ETA OZTOPATZAILEAK**

Gaurkoan haurrak egon dira eta honek saioa aurrera eramateko aukera eman digu, eta gainera euria egin du orduan gure zerbitzuak alternatiba eman die haurrei etxetik irteteko. Bestalde, haurrak pixkanaka pixkanaka etortzen hasi dira eta honek saioa moteldu du, hasieran zazpi ziren eta azkenean hogeita bat haur zeuden jolasten. Askok esan digute hamarrak oso goiz dela hasteko, beste batzuentzat berriz ondo dagoela ordutegia, guk ordutegi aproposa ikusten dugu. Tantaka haurrak etortzea eskertzen dugun arren kaosa izan da batzuetan, jolasa eten behar zen haur berriei azaltzeko eta momentu batzuetan zaila izan da planifikatutakoa jarraitzea, batez ere Elenaren bigarren zatian, hamaiketarik aurrera etorri direlako haur gehienak.

### **EGINDAKO ALDAKETAK**

Gaurkoan, lehenengo saiorako finkaturiko lau jardueretatik hiru egin ditugu. Lehenengo uztaiena egin dugu, gero trena eta azkenik sugea. Sugearen jardueran puxikak sartu ditut sokak izan beharrean, eta hurrek erabilera desberdinak eman dizkiote jolasa bukatu dugunean, hauekin jolasten hasi dira talde desberdinetan edo indibidualki eta aproposagoa ikusi dut haien kabuz jolasten uztea planifikatutako azken jarduera egitea baino.

Elenak bozgorailu bat ekarri du eta saio guztian zehar euskal musika izan dugu jarrita, ez

oso altu baina girotzeko nahikoa, musikak giroa erlaxatzen lagundu digu eta hain espazio handian isiltasuna apurtu du batzuetan.

### **GERTAERA KRITIKOAK**

Lau urteko bi haur etorri dira hamaikak aldera bakoitza bere gurasoekin, azaldu diegu zertan geunden jolasten, berez sei urtetatik gorako umeentzat dela baina gustura badaude geratu daitezkeela eta geratzea erabaki dute. Hala ere, amek haien telefono zenbakiak eman dizkigute badaezpada hain txikiak izanda agian ordu bata baina lehenago aspertzen baziren. Hasieran, parte hartu dute eta haur nagusienek lagundu diete jolasetan baina berehala aspertu dira eta haien kabuz jolasten hasi dira eta hamabiak aldera kalera irten nahi zuten haiek bakarrik, orduan haien amei deitu izan behar diegu ezin ginelako haien gainean egon eta beste haur guztiekin jolasen ibili. Honetaz gain, esan bezala hamaiketatik aurrera haur asko etorri dira eta jolastea eta dibertitzea bilatzen zuten haien artean horregatik Elenak bere jarduerak moldatu behar izan ditu egoerara.

### **BIZI IZANDAKOA**

Oso gustura egon naiz saio osoan zehar, hasieran urduri haurrak agertuko ziren ala ez baina etortzen hasi direnean izugarrizko lasaitua hartu dut. Haur guztiak ezagutzen nituen bistaz gutxienez eta erraza izan da haiekin konektatzea, gogoz etorri direlako eta proposatzen genituen jarduerak probatzeko prest zeuden. Adin desberdinetako haurrak elkartzea beldurra ematen zidan, batzuk aspertuko zirelakoan eta besteak ez zutelako ulertuko, baina nagusiek txikiei azaldu dizkiete jarduerak eta taldeetan haiekin banatu dira jarduerak aurrera eramanez. Hunkigarria izan da hori haien kabuz egitea, guk behartu gabe haiek hartu dute txikiei azaltzeko inizatiba eta haien taldeetan hartzeko ardura, honek izugarri erraztu du saioa.

Haur gehienak haien artean ezagutzen ziren, baina ez dira kalean elkartzen adin eta kuadrilla desberdinetakoak direlako eta gaurkoan denak elkarrekin jolastu dute. Giro polita sortu da, haien artean batzuk erdaraz egiten zuten arren Elena eta niri euskaraz egiteko eskatu diegu hasieratik eta horrela izan da ia beti. Nekagarria izan da orokorrean, hiru ordu izan direlako eta Elena eta biok jolasetan parte hartu dugulako baina saioa bukatu denean eta esan digutenean oso ondo pasatu dutela eta hurrengo egunean bueltatuko direla izugarri ondo sentitu naiz. Gurasoek eskerrak eman dizkigute haien bila etorri direnean, eta haurrak pozik bukatu dute saioa, honek izugarri poztu nau eta egindako lanaren emaitza oso positiboa atera dut.

## BALORAZIOA

Hasierako helburuak kontuak hartuz, balorazio oso positiboa atera dut saio honetatik. Eguraldi txarra zegoen eta alternatiba ludiko bat eman diegu haurrei, non ondo pasatu duten jarduera fisikoa egiten, haur desberdinekin eta inguru euskaldun batean. Saioak errazago izango lirateke haur guztiak hamarretan egongo balira baina ez da egoera errealista bat, familia bakoitzak erritmo bat du eta guk atea zabalik utziko ditugu hiru orduetan zehar ahal dutenean etortzeko.

Ebaluazio fitxetan ikus daiteke orokorrean denek ondo pasatu dute eta parte hartu dutela, haien jolas gustukoena “begirik gabeko tren” izan dela dudarik gabe eta gutxien gustatu zaiena “uztaia pasatu” izan dela. Proposamen bezala hurrengo egunetan egin ditzakegun jolas desberdinak idatzi dituzte alturitas, armiarma edo bonba besteak beste.

## EBIDENTZIAK



**SAIOA** → 2

**EGUNA:** Martxoak 12

**IKASLEAK:** 12

**TOKIA:** parkea

**METERIALA:** pilotak, uztaiak, konoak eta nik prestatuturiko kartulinak.

## SAIOAREN GARAPENA

Gaur hamarretan frontoian elkartu gara eta bertan itxaron dugu pixka bat ea zenbat haur



etortzen ziren eta erabaki dugu saioa parkean egitea oso eguraldi ona egiten zuelako. Haurren laguntzarekin materiala eramanean dugu eta frontoiaren atean kartel bat jarri dugu parkean gaudela abisatzeko, ondoan dago baina badaezpada jarri dugu. Parkean lista pasatu dugu eta haien izena, adina eta herria apuntatu dituzte, 10 haur zeuden hasieran.

Nire jarduerekin hasi baino lehen "alturitas" jolasa egitea eskatu digute eta hori egin dugu berotzeko, nola jolasten den erreparasatu dugu eta horretan ibili gara hasieran, parkeak aukera bikaina eskaintzen duelako jolas honetarako. Ondoren, "hartu eta pasa" jarduera azaldu dut, eta lau uztai eta bi pilota bakarrik genituenenez ingurutik beste edozein material hartzea erabaki dugu jolasa egiteko. Horretarako, buelta bat eman dugu ingurutik eta makilak eta pinaburuak hartu dituzte, denek objektu bat izan dugunean jolasarekin hasi gara. Ondoren, "bikoteak egin" jarduera egin dugu, bi taldetan banatu dira adinak nahastuz eta jolasten ibili dira, erraza egiten zitzaienez haiek sortu dituzte karta gehiago jolasten jarraitzeko. Azkenik, "orquestra" egin dugu, hau izan da gehien gustatu zaien jarduera, asko luzatu gara honekin denek izan nahi zutelako zuzendaria edo asmatzen zuena.

### **FAKTORE ERRESTATZAILEAK ETA OZTOPATZAILEAK**

Gaurko eguraldia eta haurrak jadanik ezagutzea izan dira faktore errestatzaile handienak. Eguraldi onak saioa kanpoan egitea ahalbidetu digu eta giro lasaiagoa ekarri du parkean egonda, askatasun handiagoa eta haurrentzako oso ezaguna den eremu bat. Gainera, gaurkoan etorri diren haur guztiak haurreko larunbatean egondakoak dira, jadanik elkar ezagutzen dira eta guk ere ezagutzen ditugu. Faktore oztopatzaile bat izan zitekeen jolas baterako izan dugun material falta, baina berehala aurkitu dugu konponbide bat inguruak eskaintzen dizkigun baliabideak aprobetxatuz.

### **EGINDAKO ALDAKETAK**

Tokiari dagokionez, saioa frontoian egin beharrean, parkean egitea erabaki dugu eguraldi ona egiten zuelako. Txamarrik gabe ondo egoten zen kalean eta batzuetan eguzkia ateratzen zen, gainera kanpoan egonda musukoa kentzeko aukera dugu. Frontoiaren atean jarri dugu kartel bat aldaketaz abisatzeko, berandu etorri diren haurrentzat eta saio amaieran haurren bila etortzen diren gurasoentzat.

Jarduerari dagokienez, haiek proposaturiko jolas batekin hasi gara nire jarduerekin hasi beharrean, horrek haurrak motibatu ditu eta saioaren parte egin ditu. Lehenengo jarduerarako nahikoa material ez genuenez, inguruak eskaintzen dizkigun naturako elementuak jaso ditugu eta azkenean denek jolastu dute aurkitu duten elementuekin eta

ez guk ekarritako materialarekin. Bigarren jardueran, nik ekarri ditut bikoteak egiteko txartelak, baina bi talde egin ditugunez bost bikote zituzten talde bakoitzak bakarrik eta erraza egin zaie. Horregatik, haur batek galdetu dit ea txartel gehiago egin ahal genituen eta horrela talde bakoitzak bost bikote gehiago egin ditu jolasteko, haien iniziatiba izan da eta kartulinak eta margoak bagenituen honetarako.

### **GERTAERA KRITIKOAK**

Ez da gertaera berezirik egon, baina parkera heldu garenean bertan putzu bat dago zapaburuekin eta haiekin jolasten hasi dira bi haur, hauek uretatik ateratzen. Azaldu diet ondo dagoela ikustea baina ezin direla animaliak horrela tratatu, ur barruan egon behar direla lasai guk haiek molestatu gabe.

### **BIZI IZANDAKOA**

Gaurkoan lasaiago egon gara, zeuden haur guztiak aurreko larunbatean egondakoak ziren, beraz ezagutzen genituen eta haiek gu. Hasieratik etorri dira haur gehienak, bi besterik ez ez dira gehitu saio hasi dugunean, honi esker saioa ez dugu hainbestetan moztu behar izan eta jarraituagoak izan dira jarduerak. Saioa kanpoan egiteak giro lasaiago bat sortu du, musukorik gabe eta gainera eguzkiarekin haurrek eta guk asko disfrutatu dugu parkean. Motibaturik etorri dira, bazekiten aurrekoan bezala jolastera eta ondo pasatzera etortzen zirela eta prest zeuden parte hartzeko eta behar zenean entzuteko. Jarduerak momentuaren arabera aldatu daitezke eta hauen iraupena ere, horregatik gustatzen ziena eta funtzionatzen duenari behar duen denbora eskaintzen diogu eta jardueraz aldatu behar bada aldatzen da, ez dago presiorik ezta bete beharreko programazio itxirik. Gaurkoan nire saioaren zatia pixka bat luzatu da, baina hurrengo egunean Elenak izango du denbora gehiago.

### **BALORAZIOA**

Oso positiboki baloratzen dut saio hau, haurrak elkarren artean jolastu dute eta ez da liskar berezirik egon, gaizki ulertuak eta haserre txikiak bai baina haien artean edo gurekin hitz eginez azkar konpondu diren gauza txikiak izan dira besterik ez.

Ebaluazio fitxei dagokienez, haurrek ere oso positiboki baloratu dute saioa, jarduerarik gustukoena "orquestra" izan da eta gutxien gustatu zaiena "hartu eta pasa". Orkestra jolasa oso gutxik ezagutzen zuten eta nobedade bezala hartu dutenez, saioa bukatu baino lehen Elenaren zatian berriro egin dugu, haiek eskatuta.

### **EBIDENTZIAK**



**SAIOA** → 3

**EGUNA:** Martxoak 19

**IKASLEAK:** 14

**TOKIA:** parkea

**MATERIALA:** puxikak eta pilota.

### **SAIOAREN GARAPENA**

Gaurkoan ere eguraldi ona egiten zuen, eguzkirik ez baina tenperatura atsegina kalean egoteko, eta musukoa kentzekotan nahiago izan dugu parkean egin. Aurrekoan bezala egin dugu, frontoian itxaron haurren gehiengo eta etorri arte, materiala parkera eraman eta frontoiko atean kartel bat jarri non gauden jakiteko. Lista pasatu dugu eta haien izena, adina eta bizilekua apuntatu dituzte saioarekin hasi baino lehen. Berotzeko haiei proposatu diet jolas bat pentsatzea eta “bonba” jolasa aukeratu dute, horretarako nola jolasten den birpasatu dugu aldaera desberdinak daudelako eta nola jolastuko dugun erabaki dugunean hasi gara. Askok gustatzen zaien jolasa denez nahiko luzatu gara, baina gutxi kostatu zaigu hurrengo jarduerara pasatzea puxikak atera ditudanean.

Lehenengo jarduera “puxika mantendu” izan da, kanpoan musukorik gabe egin ahal dena eta azkar harrapatu dute. Haiek egin dituzte bikoteak, nahiko orekatuak, eta binaka eta launaka lortu dute egitea, gero talde osoak egin dugu eta Elena eta nire laguntzarekin lortu dugu saiakera batzuen ostean. Ondoren, puxikak puzturik genituela erreleboak egin ditugu, kasu honetan bikoteak ez errepikatzeko nik egin ditut baina ez da kexarik egon. Errelebo guztiak egitea lortu dute, batzuei besteei baino gehiago kostatu zaie baina denek lortu dute. Jarraian “gogoan izan” jarduera egin dugu, lehenengo bi taldetan bata Elenarekin eta bestea nirekin eta gero talde osoa batera baina bat baino gehiago ziren asmatu behar zutenak. Saioa bukatu denean, haur eta gurasoei gogoratu diegu hurrengo

larunbatean ere egongo garela nahiz eta kartelean ez den agertzen.

### **FAKTORE ERRESTATZAILEAK ETA OZTOPATZAILEAK**

Faktore errestatzaileak eguraldia eta hurren jarrera eta gogoak izan dira. Behin ere eguraldiari esker giro atsegina izan dugu parkean, gainera parke irekia denez hiru haur joan dira parkera jolastera eta jolasten ikusi gaituztenean gurekin geratu dira jolasten, kanpoan egiteak aukera eman die gurekin topo egiteko. Bestalde, haurrak badakite ondo pasatzera eta jolastera datozela eta energiak beterrik eta gogoz etortzen dira, honek saioa aurrera eramatea ahalbidetzen digu. Ez da faktore oztopatzailearik egon, batzuetan jarduera guztiak egiteko denborarik ez dago baina hiru ordu jarraian nahikoak direla uste dugu, gainera geldiuneak egiten ditugu ura edo komunera joateko eta saioaren erdian deskantsu txiki bat ere.

### **EGINDAKO ALDAKETAK**

Tokiari dagokionez, frontoian egin beharrean parkean egin dugu aurrekoan bezala. Jarduerari dagokionez, saioari hasiera emateko hurrei eskatu diet jolas bat proposatzea ezaguna duten eta gustukoa duten zerbaitekin hasteko. Lehenengo jardueran haiek egin dituzte bikoteak, baina bigarren jardueran nik egin ditut hauek ez errepikatzeke. Haien esku uzten ditugu taldekatzeak, orekatuak direlako eta ez dagoelako beti elkarrekin jartzen den talderik, nahasteko tendentzia dute baina ez guztiek, baina bikoteak egin ditudanean eroso sentitu dira eta ez da kexarik egon. Saioarekin amaitzeko beste jarduera bat nuen arren denborarik gabe gelditu gara, Elenak bere saioaren zatia egin behar zuelako orduan hirugarren jardueran luzatu gara beste jarduera batekin hasi ordez.

### **GERTAERA KRITIKOAK**

“Bonba” jolasten ari ginean liskar txiki bat egon da bi hurren artean, pilota modu txarrean jaurti duelako batek eta aurpegian eman diolako, horregatik haserretu eta parketik joan da. Gure ardurapean daude horregatik bere atzetik joan naiz gelditu eta lasaitu den arte, bitartean Elenak jarraitu du jolasarekin. Haurrarekin hitz egin dut eta bueltatu egin gara parkera beste haurrarekin hitz egitera eta arazoa konpondu dugu. Momentu honetan konturatu gara zein beharrezkoa den bi pertsonen elkarlana horrelako zerbitzu batean, batek ihes egitea erabakitzen badu beste geratzen da gainerakoen ardurapean, batekin bakarrik oso momentu zaila izango litzateke.

### **BIZI IZANDAKOA**


Gaurkoan ere oso gustura sentitu naiz, haurrak gehiago ezagutzen ditugu gehiengoa

aurreko egunetan egon direlako eta beste batzuk berriak izan dira ere eta ezagutzeko aukera izan dugu. Sortzen den giro onak asko errazten dit saioa gidatzea, ez dagoelako bete beharreko ordutegi edo programaziorik, momentuaren arabera behar ditugun aldaketak egiten ditugu, haurrentzako sorturiko zerbitzua da eta haien arabera moldatzen gara gu. Gainera, Elenak transmititzen didan segurtasunari esker lasaiago sentitzen naiz, badakit zerbait falta bazait edo arazorik badago gaurkoan ihes egin duen umearena bezala bera dagoela nire ondoan, momentu hori izan da pixka bat larritu nauena besterik ez.

### BALORAZIOA

Positiboki baloratzen dut saio hau, haurrak dibertitu dira, jarduerak egin ditugu eta haur berriak etorri eta ezagutu ditugu. Ebaluazio fitxei dagokienez, gehien gustatu zaien jarduera “gogoan izan” izan da eta gutxien gustatu zaiena “erreleboak”, orokorrean ondo pasatu eta parte hartu dutela adierazi dute eta behin ere proposamen bezala haien gustuko jolasak izan dira.

### EBIDENTZIAK



**SAIOA** → 4

**EGUNA:** Martxoak 26

**IKASLEAK:** 14

**TOKIA:** frontoia

**METERIALA:** puxikak, uztaiak, zapiak, klarionak, sokak,

pilotak, konoak, papera eta margoak.

### **SAIOAREN GARAPENA**

Gaurkoan frontoian itxaron ditugu haurrak eta bestei bezala lista pasatu dugu eta zerrenda bete dute hurrek. Haur guztiak etorri bitartean haiek proposaturiko “armiarma” jolasean ibili gara, aurreko ebaluaketa fitxetan gehien errepikatzen jolasa zen ahu, eta bitartean pare bat haur gehiago etorri dira.

Guztira hamalau hau zaudenez bi talde egitea erabaki dut “altxorraren bila” egiteko, haiek egin dituzte taldeak, bat Elenarekin joango dena eta bestea nirekin. Hiru erronka dira, talde bakoitzak orden batean egin ditu ez elkartzeko eta Elena eta biok komunikatzen ginen erronkaz noiz aldatu adosteko. Hiru erronkak hiru espazio desberdinetan egin ditugu, frontoi barruan, frontoi kanpoan eta parkean, pistak hauetako toki batera eramaten zituen, azkeneko pistak haur guztiak toki berdineran eraman ditu altxorra aurkitzera. Altxorraren ondoren “erlaxatu” jarduera egin dugu, hasieran urduri zeuden begiak itxita edukitzeagatik baina bigarren txandarako erlaxatu egin dira eta disfrutatu, denak elkar ezagutzen zirelako. Bukatzeko, amaierako jarduera egin dugu baina puxikak erabili gabe, hauek eztanda egiteko beldurra zuen haur bat zegoelako, paperetan marraztu edo idatzi dute aste haietan edo egun honetan bizitakoa eta nahi izan duenak besteekin partekatu du.

### **FAKTORE ERRESTATZAILEAK ETA OZTOPATZAILEAK**

Faktore errestatzaileak izan dira Elenaren laguntza izatea eta ditugun espazio desberdinak. Elenaren laguntzari esker altxorraren jarduera dinamikoagoa izan da eta bi talde egin ahal izan ditut, ezinbestekoa izan da bere laguntza jarduera ondo ateratzeko. Honetaz gain, jarduera hau egiteko hiru espazio desberdin erabili ditugu frontoia, frontoiaren kanpoaldea eta parkea, honi esker hurrek agertoki aldaketak eduki dituzte eta jarduera interesgarriagoa izan da frontoi barruan dena egin baino. Ez da egon faktore oztopatzailearik, ez zuen eguraldi oso ona egiten baina kalean txamarrarekin gustura egon ahal zen.

### **EGINDAKO ALDAKETAK**

Saioarekin hasteko haiek aurreko astean ebaluaketa fitxetan gehien aipatu zuten jolasa erabili dut. Ondoren, “altxorraren bila” jardueran bi talde egin ditut bakarra izan beharrean, dinamikoagoa izateko eta denen parte hartzea bermatzeko. Azkenik, puxikak erabiliko genituen eta bertan sartuko genituen haiek idatzitako do marraztutako paperak eta

esplotatu gero barruan zegoena irakurtzeko, baina haur batek izugarrizko beldurra zuen puxiken eztandari eta erabaki dugu ez zela beharrezkoa. Haurrek egindakoa jaso dugu eta nahi zuenak berea erakutsi eta azaldu du besterik gabe.

### **GERTAERA KRITIKOAK**

Ez da gertaera kritikorik eman, haserre txikiren bat besterik ez. Erronkak egiten ari ginenean, momentu batean talde bateri gehiago kostatu zaio besteari baino, baina bitartean beste “orkestra” jolasean ibili gara ez aspertzeko, horrela beste taldeak bukatu duenean aldatu gara.

### **BIZI IZANDAKOA**

Polita izan da azken saio hau, “altxorren bila” jolasean asko disfrutatu dutelako eta emozioa nabari zen. Gustura sentitu naiz, zeuden haur guztiak aurreko egunetan egondakoak zirelako eta ezagutzen genituelako, gehienak besarkatzen zaituzte eta haien bizipenak kontatzen dizkizute, momentu horiek dira politenak. Saioaren zati hau bukatu dugunean azken jarduerarekin asko hunkitu naiz, hitz edo marrazki politak bakarrik zituzten guretzako eta saioa guztiz bukatu denean eta eskerrak eman digutenean izugarri ondo sentitu naiz eta pena eman dit nahiz eta badakidan herrian zehar ikusiko ditudala.

### **BALORAZIOA**

Oso saio polita izan da, talde lana izugarria izan da altxorra lortzeko eta benetan ondo aritu direla, elkarrekin komunikatuz eta beti zerbitzuarekin hasi ginenetik haur nagusienak txikiei lagunduz.

Ebaluazio fitxei dagokienez, jarduerarik gustukoena “altxorren bila” izan da, denek kointziditu dute honetan eta gutxien “erlaxatu” besterik ez dugula egin. Proposamen bezala jarri dute egun gehiagotan egitea eta altxorren jarduera luzeagoa egitea.

### **EBIDENTZIAK**

